5 El pacto debe actualizar a una definición más amplia del derecho a la educación como derecho al aprendizaje, desde el nacimiento y a lo largo de la vida. Ya no es un derecho a acceder sino a adquirir los aprendizajes y logros necesarios. Como establece el Comité de Derechos del Niño, eso empieza por incorporar plenamente la educación infantil, desde el nacimiento, tarea que comparten familia y sociedad. ¿Por qué no reconocer el derecho a una plaza de atención educativa infantil desde el fin del permiso parental? ¿Debe haber un derecho a la educación posobligatoria, especialmente en la FP donde todavía falta oferta y sigue habiendo un abandono importante? ¿Y a las actividades extraescolares, una educación no formal donde crecen las desigualdades?

6 La fuerza del pacto, y el peso social de sus firmantes, debe servir para generar conciencia y ayudar a cambiar percepciones sociales sobre la educación: que el derecho a aprender es de todas y todos sin excepción, que el bienestar en la escuela importa o que la diversidad es un activo y una competencia imprescindible para desenvolverse en nuestro tiempo.

7 Este proceso debe contar con la participación de niños, niñas y adolescentes, debe ser un pacto intergeneracional. No podemos pensar la educación del futuro sin ellos y ellas. Un pacto legítimo debe contar con su voz. Es una cuestión de justicia intergeneracional, como ocurre con la emergencia climática. Transitarán por el sistema educativo que configuremos hoy y de ello dependerá en parte la sociedad donde vivirán.

El pacto es una oportunidad para ejercer desde Navarra un liderazgo colaborativo en la mejora educativa. Ser referente en avances implica también una responsabilidad colectiva. Navarra puede ser vanguardia, impulsando medidas educativas a nivel estatal y colaborando con otros territorios para avanzar juntos. La posibilidad de comunicar y compartir conocimiento y buenas prácticas en un Estado cuasi-federal como el nuestro es un activo poco aprovechado. Como ya hemos señalado, la educación como bien público global no entiende de fronteras, y la magnitud de los desafíos es demasiado grande para afrontarlos solos.

2.2. Respuesta de Nacho Guadix

Por añadir una mirada complementaria, este pacto que estamos empezando a impulsar hoy podríamos llamarlo también “Pacto por el Derecho a la Educación” porque lo podemos confundir con que es un servicio, sin embargo, es un derecho.

La convención nos obliga a dar a conocer su contenido en especial a los niños y niñas. Con la LOMLOE pasa a formar parte del preámbulo de la ley. Debería estar en el desarrollo curricular de todas las autonomías ya que tiene

una especial potencionalidad porque la competencia social y ciudadana es clave para poder engranar todas las otras competencias que conllevan un desarrollo personal. Hemos de ser capaces de generar ciudadanos que tengan la capacidad de contribuir de forma pacífica en el desarrollo de sus sociedades. Es imposible trabajar por los derechos si no se conocen.

Es importante que cada persona tenga el espacio para desarrollarse y poder llegar al máximo de sus posibilidades, pero siempre con el vecino al lado.

Cuando se interiorizan los derechos luego es más fácil generar empatía, el problema es hacerlo al revés, cuando se persigue una carrera hacia los recursos; unos recursos que son limitados y únicamente llevan a mini triunfos temporales y coyunturales. Para cualquier mínimo avance hemos necesitado al de lado, por lo que es necesario llegar a un acuerdo por el pacto.

Los derechos de la infancia pueden servir no solo para generar una visibilidad sino que tienen una capacidad transformadora enorme.

Bloque 3:

El concepto de "entorno protector", como ecosistema social, natural y virtual en el que nos tratamos bien y nos cuidamos los unos de los otros en un contexto libre de violencia, se hace especialmente necesario en la infancia.
¿Qué claves daríais para maximizar la protección de niños y niñas en los centros educativos?
Particularmente en la era digital en la que nos encontramos, ¿qué podéis decirnos al respecto?

3.1. Respuesta de Nacho Guadix

Si algo hemos detectado o algo podemos evidenciar en la pandemia es la función protectora de la escuela; de hecho la presencialidad obedece principalmente a eso. Cuando los niños se fueron a casa hace 2 años a muchos les perdimos la pista. No sabemos que ocurrió, no sabíamos quién tenía acceso a la comida del comedor escolar, desconocíamos si las familias tenían medios para conectarse a internet. Por eso es necesaria la reapertura segura que hace falta para poder abrir los centros, para que el profesorado como factor esencial esté vacunado y pueda incorporarse con la mayor seguridad posible.

En este momento tanto la LOMLOE como la LOPIVI nos ofrecen un momento en el que trabajar de forma intensiva. Es evidente que la violencia contra la infancia existe. Los últimos datos que tenemos del Ministerio del Interior nos dicen que en 2019 tuvimos cerca de 5500 casos de maltrato infantil (datos prepandemia). Casi la mitad de las denuncias de libertad sexual son

contra la infancia (en 2007 hubo cerca de casi 6000 denuncias). Hemos realizado una macroencuesta relativa al impacto de la tecnología en la infancia el noviembre pasado y nos dicen que los datos de acoso y ciberacoso son más preocupantes de los que contábamos hasta este momento casi uno de cada tres admite haber sufrido acoso y uno de cada cinco ciberacoso.

Con lo cual nos lleva a una naturalización de la violencia donde no podemos dejar de atender una realidad en la que está presente la violencia. En un entorno con violencia no hay espacio para el crecimiento ni para el desarrollo y por lo tanto el derecho a la educación también está siendo vulnerado. Con lo cual estos entornos protectores hacia los que nos tenemos que dirigir tienen que tener una mirada muy amplia; esto supone también un reto para la escuela que tiene que ampliar lo que es el concepto tradicional de convivencia. Muchos de los alumnos y alumnas vienen con problemas de fuera de la escuela. El factor de barrera y detección de la escuela en este momento es insustituible, igual que lo puede ser en pediatría o por parte de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad. En la escuela debemos ser capaces de detectar estas situaciones y de actuar porque ahora mismo hay falta de reconocimiento del problema. Hablamos de que el primer paso es tener adultos conscientes para generar estos entornos porque si no soy capaz de detectar qué es una situación de violencia difícilmente voy a poder poner en marcha el mejor protocolo que podamos tener en este momento. Para eso se está trabajando en una figura que es del coordinador o coordinadora de bienestar y protección en los centros educativos como una figura que puede ayudar a dinamizar esta perspectiva y a llevar un trabajo sistemático en el cual estemos seguros que cada vez que nuestro hijo se queda en los centros escolares no solo no van a sufrir violencia por parte de los que están ahí, sean adultos o sean niños, sino que también están preparados para detectar y poder dinamizar las redes de apoyo y protección que tienen. La protección es un esfuerzo colectivo. La necesidad de crear una red interna en la que estén por supuesto todo el profesorado, los servicios de orientación, el personal de administración y servicios y, por supuesto, los propios niños y niñas que tienen una función básica en todo esto y luego una red externa donde esté ya el ámbito sanitario, el policial, el judicial y que tienen que ser capaces de funcionar de una manera muy rápida.

Hay que hacer una gran labor de prevención. Quizá uno de los datos que podamos rescatar es que necesitamos revisar cómo estamos haciendo la prevención porque los datos que tenemos nos indican que en todos los sitios hay proyectos y planes de prevención pero quizá sea preciso revisarlos.

Si no hacemos ese trabajo de base amplio en prevención y sensibilización estaremos dedicados a atender casos con graves incidentes y sería la parte más desagradable.

Por lo tanto es una función colectiva de reconocimiento en la cual el ámbito digital no está exento porque lo digital atraviesa el espacio y el tiempo en el que se está estoy sufriendo esa violencia.

Los datos de esta investigación nos hablan de algunos aspectos como por ejemplo que el 60% de los chicos y chicas han aceptado desconocidos en sus redes sociales y eso ya no es lo más preocupante sino que el menos el 20% ha quedado en persona después. 1 de cada 10 adolescentes ha recibido proposiciones sexuales por parte de un adulto. Es un entorno máximo de desprotección y de criminalidad y la mayoría de los adultos estamos ajenos a que esto está pasando. La Policía Nacional o Guardia Civil nos avisa de que esto está creciendo.

Son cuestiones que afectan a la familia y a la escuela. En cualquier acceso al mundo digital por parte del niño o niña la familia tiene que generar un acompañamiento pero la escuela también tiene que desarrollar toda esa labor de convivencia digital de buenos usos porque al final esto no es una cuestión de poner límites, al contrario, las posibilidades de participación social y ciudadana que ofrecen la tecnología son increíbles y deben desarrollarse pero sin dejar de lado la cantidad de riesgos.

Desde el punto de vista de los entornos es imprescindible esa protección y esa visión de conjunto y de comunidad qué son más necesarias que nunca.

3.2. Respuesta de Álvaro Ferrer

Es un error frecuente pensar a la infancia meramente como etapa de preparación o transición hacia la vida adulta y no como sujetos de derechos hoy. En el mismo sentido, se concibe la escuela como una preparación para el futuro y no como un espacio donde desarrollarse, ejercer derechos y "estar bien" hoy, en el presente.

Otra importante lección de la pandemia es que el bienestar importa y que la escuela es un espacio clave para el bienestar emocional de niños, niñas y adolescentes. Para ello es necesario que la escuela sea un espacio seguro para ellas y ellos, que los trate bien y cuide de su bienestar.

La investigación a lo largo de décadas muestra la importancia de las emociones –como parte de las denominadas "habilidades no cognitivas"– para el aprendizaje, el logro y la inclusión social y laboral. Pero más allá de como un medio, desde Save the Children creemos que ha llegado la hora de darle al bienestar y la competencia socioemocional el lugar que merece como objetivo de aprendizaje y como resultado deseable de un sistema educativo, al mismo nivel que las competencias cognitivas.

La nueva *Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia*, conocida como "LOPIVI", supone un

hito en este sentido para el sistema educativo, al consagrar "el desarrollo pleno de los niños, niñas y adolescentes y su participación en una escuela segura y libre de violencia, en la que se garantice el respeto, la igualdad y la promoción de todos sus derechos fundamentales y libertades públicas, empleando métodos pacíficos de comunicación, negociación y resolución de conflictos".

La violencia constituye la mayor antítesis del bienestar y la seguridad. La implementación de la LOPIVI en los centros educativos implica cambios en los centros educativos para asegurar detección, reporte y respuesta ante la violencia:

- Revisar los planes de convivencia
- Definición de responsabilidades, mediante un código de conducta y la formación de las profesionales
- Protocolos de reporte y respuesta en casos de maltrato, acoso y ciber-acoso
- Una nueva figura de coordinador/a de bienestar y protección

Sin embargo, más allá de estructuras y procesos que aseguren la adecuada respuesta frente toda forma de violencia, pensar las escuelas como "entornos seguros y de buen trato" implica transformaciones más profundas en el proyecto educativo, la organización y cultura escolar, el currículo y la pedagogía, en aspectos como:

- Las relaciones interpersonales, la gestión del aula y de la disciplina, hacia unas más respetuosas, sanas y positivas.
- La conciencia y valoración positiva de la diversidad.
- Aprendizaje de la competencia social y emocional, clave para la salud mental, y de la educación afectivo-sexual.
- Formar a niños, niñas y adolescentes en el conocimiento de sus derechos.
- Fomentar el uso seguro y responsable del entorno digital, promoviendo una "ciudadanía digital responsable".

Bloque 4

Equidad, calidad, inclusión, conflictos, emergencias, COVID… Son líneas maestras del trabajo que realizan vuestras organizaciones.

¿Cómo se traducen vuestras actuaciones más destacadas en el ámbito educativo?

¿Podríais contarnos alguna experiencia concreta que ahora estéis llevando a cabo y pueda servir de modelo inspirador?

4.1. Respuesta de Álvaro Ferrer

Save the Children es una ONG que actúa en 120 países, entre ellos España, con el derecho a la educación como una de sus prioridades. Humildemente, el trabajo de nuestra organización en materia educativa puede aportar algunas experiencias de interés y lecciones aprendidas. Las estructuraré siguiendo los tres pilares que conforman la "teoría del cambio" de la organización, que es la forma en que perseguimos nuestro objetivo de lograr mejoras duraderas en la vida de niños, niñas y adolescentes: *ser la voz – ser el innovador – conseguir cambios a gran escala*. Es decir, analizamos y damos visibilidad a los problemas; probamos directamente soluciones innovadoras a ellos; y trabajamos para escalar las más eficaces en políticas públicas.

Desde el primer eje, en los últimos años Save the Children hemos intentado *ser la voz* mostrando con datos rigurosos los problemas de desigualdad de oportunidades educativas en España que hasta ahora eran poco visibles. Mediante informes y análisis, a partir de fuentes como PISA, datos administrativos o entrevistas, hemos acercado el foco público a la elevada segregación escolar socioeconómica, al acceso desigual a la educación 0-3, a la inequidad de la repetición de curso o, más recientemente, a la deteriorada salud mental de la infancia tras la pandemia.[1]

En este tiempo hemos constatado que nuestro sistema educativo adolece de una baja calidad de datos, no desagrega los datos por colectivos vulnerables ni explota los datos administrativos que tienen los centros, lo que empobrece los debates, limita la calidad de las decisiones y la rendición de cuentas democrática. Frente a la resistencia a datos y evaluaciones presente a veces en el ámbito educativo, los datos de calidad aportan luz y matices sobre los problemas y permiten construir diagnósticos compartidos como el que necesita un pacto.

Desde el segundo eje, Save the Children quiere *ser el innovador* desarrollando y probando nuevas soluciones educativas basadas en evidencia. A través de nuestro Programa de Lucha contra la Pobreza Infantil, hemos aprendido que, mediante el trabajo integral, combinando acompañamiento y refuerzo al aprendizaje de niños y niñas, acompañamiento a la familia, intervención psicológica y ocio de calidad, logramos mejorar el desarrollo y el éxito escolar y reducir la transmisión intergeneracional de las oportunidades.

Los últimos años venimos desarrollando un nuevo programa con la primera infancia, trabajando la crianza y el desarrollo simultáneamente con niños y niñas menores de 6 años y sus familias. Hemos aprendido que esta etapa educativa tiene un papel crítico y que una oferta educativa más flexible, con otras modalidades que acompañen en la crianza a la familia, otros horarios en

1 Ver Save the Children (2018; 2019a; 2019b; 2021) y Ferrer y Gortázar (2021).

función de sus necesidades, facilitarían la escolarización y el desarrollo de los más vulnerable.

Pero, sobre todo, la lección es que necesitamos más innovación y experimentación desde el sistema educativo, poner en valor el conocimiento adquirido, para resolver con mayor eficacia los retos que tiene por delante.

Por último, desde el tercer eje, intentamos *conseguir cambios a gran escala* trabajando en alianza con las administraciones para incorporar medidas eficaces en políticas, programas y prácticas educativas públicas. Así lo hemos hecho con cambios normativos como la aprobación de la LOPIVI o con la inclusión de la segregación escolar y la vulnerabilidad social en la LOMLOE. Ahora estamos poniendo en marcha proyectos para escalar la mejora educativa colaborando con administraciones y centros educativos. Por ejemplo, ayudando al diagnóstico y transformación de centros educativos en entornos de protección y bienestar. basándonos en la metodología "escuelas seguras" probada por Save the Children durante décadas con evidencia en 40 países, desde un enfoque integral de la escuela y la comunidad. Nuestro aprendizaje es que se pueden lograr mejoras, que ya se han conseguido, pero que hace falta conocer qué hay ahí fuera, compartir conocimiento y trabajar juntos.

4.2. Respuesta de Nacho Guadix

Nosotros estamos trabajando en una línea que llamamos Educación en Derechos de Infancia junto con el misterio y las distintas Consejerías para poder avanzar e implantar este plan. Los derechos de la infancia no hay que entenderlo como algo que aparece en una asignatura de un año de tu vida escolar sino como una herramienta que sirva para la organización escolar ya que tiene un poder transformador enorme. Es muy fácil entender que si yo sé que tengo derecho a saber lo que es el derecho a la protección y que lo normal es que me traten bien y que juegue con mis amigos y que no me agregan esto lo pueda proyectar a medida que voy creciendo a otros lugares donde veo que hay conflicto. Cuándo puedo resolver las cuestiones del día a día desde el punto de vista de derechos avanzamos. Puede haber un conflicto pero debemos ser capaces de resolverlo desde el punto de vista de la disciplina o como perspectiva de derecho. Si los niños y las niñas son los garantes de sus propios derechos pasamos de tener agentes problemáticos en clase a personas que están contribuyendo a las soluciones. Generar esta cultura es una herramienta muy poderosa.

Esta aproximación la basamos en cuatro ámbitos de trabajo. El primero es el propio conocimiento de los derechos. No se puede defender o trabajar algo que no sabes que existe.

Un segundo espacio de trabajo es el de la protección ya que contribuye a un espacio seguro.

El tercer ámbito sería el de la participación infantil que ahora tiene su espacio y su propio desarrollo porque es la herramienta más poderosa y más rápida para generar recursos para un ámbito de desarrollo.

Y el cuarto es el del clima escolar donde encajaríamos todo el engranaje de ir a una toda la comunidad educativa.

Cuando somos capaces de poner a funcionar estos cuatro ámbitos de una manera virtuosa la transformación del centro se produce.

Ya son cerca de 250 centros en todo el territorio que están en esta línea de trabajo con un objetivo de ir evolucionando. Tenemos una serie de indicadores en los cuales ayudamos al centro a ir evolucionando y luego le damos un soporte desde punto vista de la formación y del acompañamiento.

Todo este proceso comienza con una autoevaluación que consiste en conocer cómo está mi centro a día de hoy de acuerdo al cumplimiento con los derechos de la infancia.

Esta evaluación ha de ser un ejercicio colectivo para recabar la mayor cantidad de información posible y poder dinamizar a toda la comunidad porque al final es importante y es así donde nos encontramos equipos directivos y claustros bien engrasados bien dinámicos y bien preparados. De esta manera seremos capaces ya no solo de superar las dificultades que tenemos en el centro sino también de capaces de proyectar la cooperación horizontal.

Desde fuera del sistema intentamos colaborar y necesitamos validar estas visiones o estás miradas complementarias que nosotros podemos aportar pero que si no están testadas y no son útiles dentro del día a día pues difícilmente tendrán un arraigo.

El siguiente paso después de este diagnóstico inicial es generar un plan de acción en el que vean cómo van a llevar las medidas correctoras necesarias y qué objetivos hay que plantearse en el corto y en el medio plazo.

Este programa tiene tres niveles de complejidad donde cada vez se van sofisticando un poco más los objetivos que se les aplican. Hay una parte importante que está en la formación de los propios docentes y cómo va evolucionando y lo que pretendemos es que finalmente generemos una evidencia suficiente para que esto se eleve a política pública y los derechos de la infancia pueden servir también como herramienta pedagógica no solo como un contenido.

No es tarea fácil sin embargo somos conscientes que al final los centros que participan son los más guerreros porque son los que se apuntan a todos los proyectos. Hemos comprobado que cuando llega la pandemia han estado mejor preparados que otros centros para abordar esta situación porque ya

tienen esa mirada incorporada; no se les ha escapado ningún niño o niña ni ninguna atención y estaban mucho más más sensibles para ese enfoque y para que nadie se quedara atrás.

Evidentemente es un proceso de cultura escolar y de calidad educativa que intenta una de esas dos cuestiones que llevamos poniendo sobre la mesa como son la equidad y la calidad que creo que son indisolubles.

Referencias bibliográficas Alvaro Ferrer

Bonal, X., Tarabini-Castellani, A., Constans, M., Kliczkowski, F. y Valiente, O. (2010) *Ser pobre en la escuela. Habitus de pobreza y condiciones de educabilidad.* Colección: Educación, Globalización y Desarrollo. Barcelona: Mino y Dávila.

Delors, J. (1996). *La Educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo XXI*. París: UNESCO.

Ferrer, A. y Gortazar, L. (2021). *Diversidad y libertad*. Reducir la segregación escolar respetando la capacidad de elección de centro. Barcelona: EsadeEcPol y Save the Children.

Instituto Nacional de Estadística (2016). Encuesta de condiciones de vida. Módulo año 2016. Acceso a los servicios.

Ministerio de Educación y FP (2019). PISA 2018. Informe Español. Madrid: Ministerio de Educación y FP.

Ministerio de Educación y FP (2021). Las cifras de la educación en España. Curso 2019-2020 (Edición 2022).

Naciones Unidas (1999). Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Observación General nº 13 sobre el derecho a la educación.

Naciones Unidas (2018). Comité de los Derechos del Niño. Observaciones finales sobre los informes periódicos quinto y sexto combinados de España.

Page, S. E. (2008). *The Difference: How the Power of Diversity Creates Better Groups, Firms, Schools, and Societies*. Princeton, NJ: Princeton University Press.

Save the Children (2018). *Mézclate conmigo: de la segregación socioeconómica a la escuela inclusiva*. Madrid: Save the Children.

Save the Children (2019a). T*odo lo que tienes que saber sobre equidad de PISA 2018. La equidad educativa en España y sus comunidades autónomas*. Madrid: Save the Children.

Save the Children (2019b). *Donde todo empieza. Educación infantil de 0 a 3 años para igualar oportunidades*. Madrid: Save the Children.

Save the Children (2021). *Crecer saludable(mente): un análisis sobre la salud mental y el suicidio en la infancia y la adolescencia*. Madrid: Save the Children.

Soler, A., J.I. Martínez Pastor, R. López-Meseguer, M. T. Valdés, M. A. Sancho Gargallo; B. Morillo y L. de Cendra (2021). . Madrid: Fundación Europea Sociedad y Educación.

UNESCO (2021). Reimagining our futures together: a new social contract for education. Report from the International Commission on the Futures of Education. París: UNESCO.

1. mahai-ingurua

Hezkuntzaren bidez haurtzaroaz gozatzeko eskubidea

Moderatzailea: Koldo Sebastián del Cerro

Parte hartzaileak: Nacho Guadix García (Haurren Eskubide Digitalak, UNICEF) eta Álvaro Ferrer Blanco (Save the Children GKEaren Haurtzaroko Politiken ataleko zuzendaria).

Egun on:

Koldo Sebastián naiz, irakasle erretiratua, eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren hogeita seigarren jardunaldi honetako mahai-inguruak zuzentzeko ohorea dut.

Ongi etorri foro honetara, eta eskerrik asko lehen mahai-inguruarekin bat egiteagatik. Izenburu hau du mahai-inguruak: *"Hezkuntzaren bidez haurtzaroaz gozatzeko eskubidea"*.

Gaia jorratzeko, nirekin izanen ditut Nacho Guadix eta Álvaro Ferrer.

Nacho Guadix García, gaur egun, UNICEF-Espainiako Haurren Eskubide Digitalen eta Hezkuntzaren arduraduna da, eta horretan garatu du bere ibilbide profesionala azken bi hamarkadetan.

Haurren eskubideak sustatu eta betearazteko hezkuntza politiketan duen eginkizuna dela eta, hezkuntza administrazioekin, ikastetxeekin, ikerketa zentroekin eta zenbait erakunderekin lan egiten du.

Bere jarduera eremu nagusien artean daude curriculumak prestatzea, hezkuntza berrikuntza eta kalitatea bultzatzea, eraldaketa digitala ahalbidetzea eta irakasleak prestatzea. Horretarako, proiektuak egiten ditu unibertsitateekin, hedabideekin, argitaletxeekin eta beste zenbait erakunderekin batera.

Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna da, graduondoko ikasketak ditu Giza Baliabideen Zuzendaritza eta Plangintzan, eta Lehen Hezkuntzako irakaslea da.

Álvaro Ferrer Blanco Hezkuntza Ekitateko espezialista da Save the Children-Espainian.

2017az geroztik, GKE horren Haurtzaroko Politiken Zuzendaritzako Hezkuntza atala zuzentzen du.

Espainiako hezkuntza sistemako hezkuntza politikei eta aukera berdintasunari buruzko dozena bat txosten eta ikerketaren egile edo egilekide da, baita artikulu espezializatu ugarirena ere.

Politika Zientzietan lizentziaduna da, eta graduondoko ikasketak ere baditu Nazioarteko Harremanetan.

Save the Children-Europa erakundetik eta Europako Parlamentutik igaro da, Bruselan.

Ikasle Elkarteen Estatuko Konfederazioko presidente izan da, baita Eskola Kontseiluen Estatuko Batzorde Iraunkorreko kide ere.

Luxua da zuen mailako bi profesional izatea jardunaldi honetan, eta aukera izatea beti zuen ekarpenak entzuteko; bereziki, ongi harmonizatuta ez dauden hiru kontzeptu giltzarri hauei buruz: "haurrak", "hezkuntza" eta "eskubideak".

Dakigunez, 1948an, Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onetsi zuen. Baina 1959ko azaroaren 20ra arte ez zen gauzatu, zehazki, Haurren Eskubideei buruzko Adierazpena. Eta NBEk ez zuen 1989ra arte onetsi Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.

Nazioarteko erakundeetan lortu diren eta baliatu ditugun akordio garrantzitsuen ikuspegitik, ezin esan daiteke haurrekiko sentikortasunaren ibilbidea bizkorra izan denik.

1. multzoa

Hitz egin dezagun, lehenik eta behin, konbentzioak oinarritzat dituen balio ukaezinen garapen-mailari buruz eta aurrerapen txikia izan duten alderdiei buruz, batez ere Espainian eta, zehazten ahal duzuen heinean, Nafarroan. Zein egoeratan dago gaia, zuen ustez?

1.1. Nacho Guadixen erantzuna

Egun on: Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkizuet jardunaldi hauetan parte hartzeko aukera emateagatik. Ikasturtearen bigarren zati hau itun bat sustatzeko asmoz eta hain garrantzitsua den eskubideen ikuspegiarekin abiaraztea, nire ustez, helbururik onena da.

1989ko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak, historian gehien berretsi den giza eskubideen ituna den heinean, orientatzen jarraitu behar gaitu. Hogeita hamar urte ez da denbora asko giza eskubideei buruzko tratatu baterako, eta une honetan lortu beharko bagenu 1989an lortu genuen akordio-maila, beharbada ez litzateke horren erraza izanen. Hori dela eta,

eraldaketa oro antolatzeko orduan kontuan izan beharreko lehen alderdietako bat zera da, esku artean daukagun aktiboa aintzat hartzea. Kasu honetan, konbentzioak esparru hori eskaintzen digu, eta izaera loteslea du Espainiako estatuan; 1990an berretsi zen, eta 1991ko lehen BOEren bitartez sartu zen gure ordenamendu juridikoan.

Hezkuntzaren helburua da haur bakoitza bere ahalmenaren maila gorenera eramatea. Hortik aurrera, gainerako guztia antolatzen hasi behar da. Haurrak atzean geratzen ari badira edo behar dituzten baliabideak ez badituzte, eskubide hori ez da betetzen ari.

Zalantzarik gabe, gure gain hartu beharreko erronkak dira 0-3 etapako tarteak zabaltzea eta derrigorrezko hezkuntza –edo, Latinoamerikan esaten duten bezala, "zerotik betirako hezkuntza"– amaitu ostean eman behar den bultzada erabakigarria; gainera, garapen jasangarrirako helburuek modu oso argian adierazten dute.

Askotan zarata handia entzuten dut, eta jarrera latz ugari aurkitu, baina egia da, hezkuntzaren eremuan, beste sektore instituzional batzuetan bezalaxe, polarizazio-maila gorena bizitzen ari garela, eta, beraz, horra itzuli beharra daukagu. Nire ustez, kontuan hartuta sektore honetan bokazio handia dagoela, bertako profesionalok gaia freskatu behar dugu noizean behin.

Ikuspuntu horretatik, eta Espainiara etorriz, hezkuntzarako eskubideari eta eskubideen betetze-mailari dagokienez, Haurren Eskubideen Batzordeak 2018an egindako txostenean (hurrengo txostena prestatzeko prozesua eta hurrengo berrikusketa hastear daude) dagoeneko aipatzen ziren orduan genituen arazoak, hain zuzen, 2008ko krisialdiaren ondoren finantzaketan egondako geldialdiak eragindakoak. Geldialdi horren ondorioz, finantzaketa ia berdina izan da azken 12 urte hauetan; beraz, lehenago ere agerian jarri izan da eragindako kaltea.

Haurren pobreziaren gaia ere hor dago; haurren pobreziaren adierazleei begiratzen badiegu, azken posizioetan gaude gure inguruneko herrialdeen artean. % 33ko tasa onartezina da. Haurrentzako Europako bermea, babes soziala… jorratzen ari diren gaiak dira baina, hala ere, alde batera utzi ezin diren alderdiak dira, hezkuntzatik egiten den edozein lan eremu baldintzatzen baitute.

Eskola uzte goiztiarrak kezkatu egiten gaitu, estigmatizatu egiten gaitu. EBko kideekin alderatuz gero, aurrerapenak egon diren arren, % 16tik gertu gaude oraindik ere, eta Espainiaren helburua % 15 zen (tasa, orokorrean, % 10 da). Hortaz, kezkagarria izaten jarraitzen du.

Nafarroaren kasuan, datuak apur bat hobeak dira; azken datuen arabera, % 10,8an gaude.

Nabarmendu beharreko kontu bat eskola uztearen generoa da, bereziki zigortzen baititu mutilak. Nafarroaren kasuan, % 14 inguru da mutilen kasuan, eta % 8 inguru, berriz, nesken kasuan. Hor baldintzatzaile bat ikusten dugu, eta ez dugu alde batera utzi behar. Jakina, hori ez da gertatzen soilik derrigorrezko hezkuntzaren ondoko aldiaren adinera iristean; baliteke haur eskolan ere gertatzea. Haurrak hezkuntza sistematik igarotzen dira aipatu dugun garapena lortu gabe, eta, azkenean, desertzio ez ezik, eragileak sistemara gehitzeko beharra ere bihurtzen da.

Nolanahi ere, bada beste faktore garrantzitsu bat: hezkuntzaren ikuspegi holistikoago horrek zer alderdi izan behar dituen. Esanen nuke hiru alderdik eragin berezia izanen dutela, hezkuntzaren eremuan soilik ez baitago horiek ebazteko adinako mekanismorik. Lehen alderdia jasangarritasuna da; bigarrena, migrazioak, eta hirugarrena, digitalizazioa. Hiru alderdi horiek egiten dugun planteamendu oro zeharkatuko dute; hortaz, huts eginen dute ez bagara gai haurren eskubideak mantentzeko moduan txertatzeko.

Haurren eskubideek muga bat eta abantaila bat dute aldi berean: elkarrekiko mendekotasun handia. Ezinezkoa da hezkuntzarako eskubidea bizirauteko eskubidetik edo haurren garapen eta parte hartzetik bereiztea. Horrek esan nahi du hainbat eragileren bitartez lan egin behar dela, oreka konplexua mantenduta. Horregatik, nire ustez, lehen Encarnak aipatu duen parte hartzea da irtenbide bakarra.

Pandemiak gure sistemak astindu ditu, orokorrean, baina hezkuntza sistema astindu du, bereziki. Hori dela eta, "hezkuntza berriro imajinatzea" planteatzen dugu guk, eskolak itxi zirenean, kontingentzia planik ez zegoela ikusi baikenuen. Eskola itxita egoten ahal da, baina hezkuntza ezin da gelditu. Ikasleen % 87k esperientzia digitalak izan ditu pandemian, baina haien gogobetetze-maila mugatua izan da. Horregatik, pedagogia ereduen bilakaerak alderdi horiekin guztiekin bat etorri behar du. Kontua ez da soilik ikastetxeak irekitzea, baizik eta nola funtzionatu testuinguru berri hauetan.

Berriro imajinatzearen kontzeptu honetan, "hiru K" (kontsulta, koordinazioa eta komunikazioa) deritzogun ideia batekin lan egiten dugu. Beste aldean, aurkako alderdiak ditugu: kaosa, gatazka eta, kasu batzuetan, eskola uztea. Ikastetxeen gain erori da hezkuntza berrantolatzeko ardura; oso baliabide gutxi daude horretarako, baina, zorionez, gizatalde bikaina dugu, eta horri esker lortu dugu arrakastaz jardutea, oso hurbil ditugun beste leku batzuen aldean; izan ere, beste toki batzuetan ez dira eskola martxan jartzeko gai izan pandemiak eragindako egoera konplexuan.

Haurrei eragiten dieten arazo horiei guztiei tutoretzaren eta diagnostiko goiztiarraren bidez erantzun behar zaie.

Funtsezkoa da ikasleen behar berriak identifikatzea, etorkizunean eskola porrotik ez izateko.

1.2. Álvaro Ferrerren erantzuna

Eztabaidak entzutean, batzuetan badirudi ahaztu egiten zaigula zer esan nahi duen horrenbeste errepikatzen den "hezkuntza eskubide bat da" esaldiak. Ez da *desideratum* bat edo desiragarria den utopia bat, giza eskubide bat baizik, eta gure herrialdeak bere gain hartu dituen nazioarteko betebehar zehatzetatik dator.

Hezkuntza itun baten inguruko hausnarketaren oinarrian haurren giza eskubideak jartzea oso positiboa da, eta aintzatetsi egin behar da. Litezkeen ekaitzen aurrean debateari eusteko puntu ona izaten ahal da, bizikidetzarako oinarrizko arau komunak baitira, alegia, "gutxieneko komuna".

Espainian eta Nafarroan hezkuntzarako eskubidearen arloan abiapuntua non dagoen jakiteko eta balantzea egiteko, komeni da Haurren Eskubideei buruzko Konbentziora (1989) jotzea, eta, zehazki, Nazio Batuen Erakundeko Batzordearen azken txostenera jotzea (2018an argitaratua). Txosten horretan, gainera, hezkuntza ardura bereziko arlotzat adierazi zen. Batzordearen kezka eta gomendio nagusien laburpen bat eginen dugu, Nafarroako datu batzuekin lotuta, bide batez:

Nafarroan, ikasleen % 5,9k ikasturtea errepikatu behar du DBHn. Estatuko batezbestekoa baino datu hobea den arren, Europan bigarren errepikatze tasa handiena duen herrialdearen (Belgika) mailan egoten jarraitzen du.

Nafarroak % 10,8ko eskola uzte goiztiarraren tasa du; Estatuko batezbestekoa baino datu hobea da, baina EB 2030 planaren % 9ko helburuaren gainetik egoten jarraitzen du.

Nafarroan, 15 urteko nerabeen % 25 ez da iristen gutxieneko irakurketa-mailara, eta % 18, matematikaren kasuan.

Nafarroan, baliabide gutxiko ikasleek ikasturtea errepikatzeko duten aukera maila sozioekonomiko altuko ikasleena baino lau aldiz handiagoa da. Espainian, berriz, eskola uzteko hamar aldiz aukera gehiago dute.

Nafarroako migratzaileen eta bertakoen arteko ikasketa arrakala Espainiako altuenetakoa da, eta lehenengoek 2,4 aldiz aukera gehiago dute ikasturtea errepikatzeko. Eskola uztearen arrakala bigarren handiena da Espainian (25 portzentaje puntuko aldea).

Autonomia erkidegoetako inbertsioari dagokionez, Nafarroa da ikasle bakoitzeko gehien inbertitzen duen bigarren autonomia erkidegoa, baina BPGaren gaineko ahalegina (2019an egindako gastuaren % 3,69) Estatuko batezbestekoaren azpitik dago (% 4,29).

Espainian haurrak edo gazteak dituzten etxeen % 25ek zailtasunak dituzte hezkuntza gastuak ordaintzeko.

Familiek hezkuntza gastuaren proportzio handiena beren gain hartzen duten Europako herrialdeen artean dago Espainia; Nafarroak estatuko batezbesteko bera du. Familiek kuoten bidez konpentsatzen dute finantzaketa urriegia, batez ere ikastetxe itunduetan.

Haur Hezkuntzarako sarbideko desberdintasunei dagokienez, eta pobrezia egoeran dauden haurrei, migratzaileei eta desgaitasuna duten haurrei plazak berariaz bermatzeari dagokionez, Nafarroak hobetzeko tarte handia du, 3 urtetik beherakoen eskolaratze txikiena duen seigarren autonomia erkidegoa baita (haurren % 30 bakarrik joaten da haur eskolara).

Eskola jazarpenari dagokionez, Nafarroak maila baxuak ditu, baina ikasle migratzaileek aukera gehiago dute eskola jazarpena jasateko bertakoek baino, 2018ko PISA txostenaren arabera.

Nafarroan, mutilek neskek baino 5 puntu gehiago lortzen dituzte matematikan. Mutilek, halere, neskek baino hein handiagoan uzten dute eskola garaia baino lehen, eta gehiago errepikatzen dute.

Nafarroa da desgaitasuna duten ikasleak ikastetxe arruntetan gehien integratzen dituen bigarren erkidegoa (% 89,6), eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzan desgaitasuna duten ikasleen ehuneko handiena duena.

Datuen iturriak: guk geuk egina, Nazio Batuen Erakundearen (2018), EEIren (2016), Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren (2019; 2021), Soler eta beste egile batzuen (2021) eta Save the Children (2019) erakundearen datuetatik abiatuta.

Hezkuntzarako eskubidearen egungo zentzua eta, beraz, hezkuntzaren eta gizartearen arteko harremana ulertzeak **hezkuntzaren helburuei** buruzko eztabaidara eramaten gaitu. Tratatuen definizioak agerian uzten du askotarikoak direla, eta hezkuntzarako eskubideak izaera bikoitza eta erlazionatua, banakoa eta kolektiboa dituela, banakoak ahalduntzeko eta guztion onerako.

Nazio Batuen Erakundeko beste batzorde batek, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak, ongi laburbildu du dimentsio bikoitz hori:

"Hezkuntza gizakien berezko oinarrizko eskubidea da, eta ezinbesteko baliabidea da beste giza eskubide batzuk egiazki erabili ahal izateko. Ahalduntze eskubide gisa, hezkuntza da ekonomikoki eta sozialki baztertutako helduei eta haurrei pobreziatik atera eta beren komunitateetan guztiz parte hartzeko bide nagusia. Hezkuntzak eginkizun erabakigarria du emakumeen emantzipazioan, haurrak lan esplotazioaren, lan arriskutsuaren eta sexu esplotazioaren aurka babesten, giza eskubideak eta demokrazia sustatzen, ingurumena babesten eta hazkunde demografikoa kontrolatzen. […] baina

hezkuntzaren garrantzia ez da soilik praktikoa. Izan ere, adimen hezia, argia eta aktiboa izatea, pentsamendu askatasunarekin eta zabaltasunarekin, giza existentziaren plazer eta sari handienetako bat da".

Hitz horiek, gainera, giza eskubideen oinarrizko printzipioetako bat aipatzen dute, hots, horien elkarrekiko mendetasuna. Hezkuntzak gaitu –ahaldundu– egiten du beste eskubide indibidual batzuetan jarduteko. Adibidez, ongizate materialak eta lana, Espainian pobrezia 2,5 aldiz handiagoa baita DBH ikasketak dituztenen artean goi mailako hezkuntza dutenekin alderatuta (% 30 eta % 10, hurrenez hurren), eta langabezia tasa bikoitza da (% 20 eta % 10, hurrenez hurren). Baita osasun fisiko eta mentalerako eskubidea ere, goi mailako hezkuntza dutenen bizi itxaropena oinarrizko hezkuntza dutenena baino bi urte handiagoa da eta. Edo demokratikoki parte hartzea; izan ere, zenbat eta hezkuntza maila handiagoa izan, orduan eta handiagoa da hauteskundeetako parte hartzea eta gizarte erakunde edo ekitaldi politikoetakoa. Eta hezkuntzaren eta beste eskubide batzuen arteko harreman hori alderantziz ere gertatzen da, "hezigarritasun" baldintza sozial batzuk beharrezkoak baitira ikaskuntza ahalbidetzeko.

UNESCOk, bere azken txostenean (*Gure etorkizuna elkarrekin imajinatuz: hezkuntzarako gizarte kontratu berri bat*), ongi laburbiltzen du hezkuntzak aurrez aurre duen erronka bikoitza, banakakoa eta soziala: alde batetik, atzetik datozen bidegabekeriak ebaztea, aipatutako guztiontzako kalitatezko ikasketetan berdintasuna ziurtatzeko erronka; eta, bestetik, aldi berean, etorkizun kolektiboa eraldatzea.

Pandemia bat bezalakorik ez dago, gogorarazteko gizakiak elkarren mende gaudela eta giza existentziak zein horren erronkek dimentsio banatua dutela. Txinako hiri bateko merkatu batean gertatzen denak eragina du nigan. Eta erronka horien irtenbideak ikerketatik eta berrikuntzatik datoz, horiek ere lankidetza prozesu globalak dira eta.

Horregatik, UNESCOren aipatu txostenean, "lankidetzaren, elkarlanaren eta elkartasunaren pedagogien" alde egiten da, baldin eta ikasleek elkarrekin lan egiteko eta mundua eraldatzeko gaitasunak garatzen badituzte, aurreiritziak eta zatiketak gaindituta, enpatiaz eta errukiz. Indibidualismo lehiakorraren aurrean, ikerketek agerian uzten dute talde anitzak eraginkorragoak direla arazo konplexuen aurrean emaitza sortzaileak aurkitzeko; gauza bera gertatzen da enpresa edo herrialdeekin ere.

Delors txosten ezagunean (1996), UNESCOk lau oinarritan definitu zituen eskumenak: ez heztea soilik jakiteko eta egiteko, baizik eta izateko ere heztea –autonomiaz, zentzuz eta erantzukizun pertsonalez jokatuta–, baita elkarrekin bizitzeko ere –besteak ulertuta eta gure elkarrekiko mendekotasuna onartuta–.

Baina orain kontu hau ia hil ala bizikoa da, guztion ekarpena behar baitugu erronka kolektibo itzelei aurre egiteko. Hezkuntza, eta, horrekin batera, ezagutza, prestakuntza eta kultura, inoiz baino gehiago, interes publikokoak dira.

Zer erronkari buruz ari gara? Gutxienez bost nabarmenduko ditugu: (1) planetaren jasangarritasuna eta krisi klimatikoa –arriskuan jartzen dute bai oraingo bai etorkizuneko bizi kalitatea–; (2) digitalizazioa, eta nola lortu hori bidezkoa eta gizatiarra izatea; (3) ekonomia eta gizarte desberdintasun gero eta handiagoa, eta digitalizazioak horretan izanen duen eragina; (4) demokrazia eta giza eskubideak –inoiz baino mehatxatuago daude identitate autoritarismo baztertzaileen ondorioz–; (5) migrazioak, beti hor egon den eta egonen den giza errealitatea, bizi behar duguna eta, aurreiritzi xenofoboen aurrean, gure garapenean ekarpen positiboa egiteko aukera handiak eskaintzen dituena. Hemen komeni da gogoratzea, Nafarroaren kasura ekarrita, foru komunitatean ikasle migratzaileen hezkuntza egoera hobetzeko modukoa dela, adibidez.

2. multzoa

Hona hemen Jorge Oteiza eskultorearen aipamen bat: "Arteak ez du ezer eraldatzen, ez du mundua aldatzen, ez du errealitatea aldatzen. Artistak benetan eraldatzen duena, bere lengoaiak eboluzionatzen eta osatzen dituen bitartean, bere burua da. Eta arteak eraldatutako gizon hori da bizitzatik errealitatea eraldatzen ahal duena".

Hausnarketa hori hezkuntza eremura eramanda…

Hezkuntza eskubide eraldatzaile gisa, zein heinetan eraldatzen du banakoa, eta zein heinetan gizartea?

Zer esan nahi du "hezkuntzarako eskubidetik" "eskubidetan heztera" eboluzionatzeak?

2.1. Álvaro Ferrerren erantzuna

Laburbilduz, Save the Children erakundetik, zortzi aurrerapen garrantzitsu nabarmentzen ditugu, ikaskuntzaren aldeko itun sozial batek Nafarroara eta Estatuko gainerako erkidegoetara ekartzen ahal dituztenak:

1 Itun sozial zabal eta pluralak berealdiko hezkuntza bati lehentasuna emateko balioko luke –zarata alde batera utzita, hori baita garrantzitsuena–, jasaten duen polarizazioaren eta instrumentalizazio alderdikoiaren gainetik. Halako une batean egindako itun batek oso balio handia du erakusteko, gauza zehatzetan, posible dela ados jartzea; sentimendu eta esloganetan, aldiz, askoz zailagoa da.

2 Itun horrek Nafarroak lortutako aurrerapen garrantzitsuak blindatu behar ditu (inbertsioa, eskola emaitzak, inklusioa…), eta betetzeko dauden

erronkak zehaztu. Giza eskubideetan "erregresiorik ezaren" printzipioa aipatzen den arren, errealitatean, beti egiten ahal dira atzerako urratsak. Haurren Eskubideen Batzordeak eskatzen duen moduan inbertsioa blindatzea aurrerapena litzateke.

3 Itunak datozen urteetarako iparrorratz gisa balioko duten helburu, xede eta adierazle banatu, zehatz, asmo handiko eta neurgarriak finkatzen lagundu behar du. Lehendik dauden esparruak erreferentziatzat hartuta: Agenda 2030eko 4. GJHa, Europako Hezkuntzaren Esparrua (2021-2030) edo Espainia 2050 Estrategia. Esaten den moduan, "neurtzen ez dena ez da existitzen"; hortaz, neurtu egin behar dugu bai lortu nahi duguna bai balioesten duguna. Esan dugun moduan, ekitatea, inklusioa, ikaskuntzak eta lorpena, baina baita ongizatea ere; egiteko gaitasunak, baina baita izateko eta elkarrekin bizitzeko ere.

4 Prozesu horrek lan kolektibo gisa zehaztu behar du hezkuntza, eta ez soilik eskola lan gisa. Hezkuntza, gaur egun, eskolatik haratago doa. Eskolak bakarrik ezin du, baina eskolak buru izan behar du, ingurunera irekitzea abiapuntu hartuta. "Nork hartzen du parte prozesu honetan" galderari ematen zaion erantzuna begirada aldaketa horren adibide izaten ahal da. "Hezkuntza komunitatea" "eskola komunitateaz" haratago irekitzen hasteko aukera da, "gizarte eta hezkuntza alderdien" errealitaterantz. Zergatik ez ireki ituna hezkuntza desberdintasunak orekatzeko eta hezkuntza ez-formalerako sarbidea izateko funtsezkoak izaten ari diren gizarte, hezkuntza eta inklusio erakundeei, gazte elkarteei eta kultur elkarteei? Zer dute esateko gobernuko beste arlo batzuek –hala nola gizarte zerbitzuek, osasun sistemak eta udalek– haurrekin eta haien familiekin modu integratuagoan lan egiteari dagokionez?

5 Itunak hezkuntza eskubidearen definizio zabalagoa eguneratu behar du, ikasteko eskubide gisa, jaiotzatik eta bizitza osoan zehar. Jada ez da hezkuntza eskuratzeko eskubidea, baizik eta beharrezko ikaskuntza eta lorpenak erdiestekoa. Haurren Eskubideen Batzordeak ezartzen duen bezala, horretarako, erabat jaso behar da haur hezkuntza, jaiotzatik hasita, lan hori familiaren eta gizartearen artean banatuta. Zergatik ez aintzatetsi haur hezkuntzako plaza bat izateko eskubidea gurasoen baimena amaitzen denetik? Derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzarako eskubideak egon behar du –lanbide heziketan bereziki– oraindik ere eskaintza falta denean eta eskola uzte handia dagoenean? Eta, eskolaz kanpoko ekintzak izateko eskubideak egon behar du, kontuan hartuta desberdintasunak areagotzen dituen hezkuntza ez-formala dela?

6 Itunaren indarrak eta haren sinatzaileen pisu sozialak kontzientzia sortzeko eta hezkuntzari buruzko gizarte pertzepzioak aldatzen laguntzeko balio behar dute: ikasteko eskubidea guztiona da, salbuespenik gabe; eskolako ongizatea garrantzitsua da, eta aniztasuna aktibo eta gaitasun ezinbestekoa da gure garaietan moldatzeko.

7 Prozesu honek haur eta nerabeen partaidetza izan behar du; hau da, belaunaldi arteko ituna izan behar du. Ezin dugu haiek gabe pentsatu etorkizuneko hezkuntzan. Legezko ituna bada, haien ahotsa behar dugu. Belaunaldi arteko justizia kontua da, larrialdi klimatikoaren kasuan gertatzen den bezala. Gaur eratzen dugun hezkuntza sistematik igaroko dira eta horren araberakoa izanen da, zati batean, biziko diren gizartea.

Ituna Nafarroatik hezkuntza hobekuntzan lankidetzazko lidergoan jarduteko aukera da. Aurrerapenetan erreferente izateak erantzukizun kolektiboa ere badakar berarekin. Nafarroa abangoardia izaten ahal da, estatu mailako hezkuntza neurriak sustatuta eta beste lurralde batzuekin lankidetzan jardunez elkarrekin aurrera egiteko. Gurea bezalako estatu ia federal batean ezagutza eta jardunbide egokiak jakinarazteko eta partekatzeko aukera gutxi aprobetxatzen den aktiboa da. Esan bezala, hezkuntzan, ondasun publiko globala denez, ez dago mugarik, eta erronkak handiegiak dira horiei bakarrik aurre egiteko.

2.2. Nacho Guadixen erantzuna

Begirada osagarri bat eransteagatik, gaur sustatzen hasi garen itun honi "Hezkuntzarako eskubidearen itun" ere deitzen ahal diogu, nahastu egin baikaitezke, eta pentsatu hezkuntza zerbitzu bat dela, egiazki, eskubidea denean.

Konbentzioak horren edukia ezagutaraztera behartzen gaitu, batez ere haurrak. Hezkuntzaren Lege Organikoa aldatzen duen Lege Organikoarekin, legearen hitzaurre izatera igaro da. Erkidego guztien curriculum garapenean egon beharko luke, potentzialtasun berezia baitu. Izan ere, gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna ezinbestekoa da garapen pertsonala ekartzen duten beste gaitasun guztiak eskuratzeko. Gizarteen garapenean modu baketsuan laguntzeko gaitasuna duten herritarrak sortzeko gai izan behar dugu. Ezinezkoa da eskubideen alde lan egitea ez badira eskubideak ezagutzen.

Garrantzitsua da pertsona bakoitzak bere garapenerako eta bere aukeren maila goreneraino iristeko espazioa izatea, baina beti auzokidearekin.

Eskubideak barneratzen direnean, gero errazagoa da enpatia sortzea. Arazoa alderantziz egitea da, alegia, baliabideetara iristeko lasterketa egiten denean. Baina baliabide horiek mugatuak dira, eta aldi bateko eta uneko arrakasta txikietara baino ez dute eramaten. Aurrerapen txiki oro egiteko, albokoa behar izan dugu; horregatik, itunaren aldeko akordio batera iristea beharrezkoa da.

Haurren eskubideek ez dute soilik ikusgaitasuna sortzeko balio; izan ere, gaitasun eraldatzaile handia dute.

3. multzoa

Haurtzaroan bereziki beharrezkoa da "Ingurune babeslearen" kontzeptua, ekosistema sozial, natural eta birtual gisa; horretan, ongi tratatzen dugu elkar eta elkar zaintzen dugu indarkeriarik gabeko testuinguru batean.
Zer gako emanen zenituzkete ikastetxeetan haurren babesa maximizatzeko? Zehazki, orain bizi dugun aro digitalean, zer esaten ahal diguzue horren inguruan?

3.1. Nacho Guadixen erantzuna

Pandemian hauteman edo agerian utzi dugun zerbait eskolaren funtzio babeslea da; hain zuzen ere, presentzialtasunak horri erantzuten dio nagusiki. Duela bi urte haurrak etxera joan zirenean, askoren arrastoa galdu genuen. Ez dakigu zer gertatu zen, ez genekien nork zuen eskola jantokiko janaria eskuragarri, ez genekien familiek Internetera konektatzeko baliabiderik zuten. Horregatik, ikastetxeak irekita izateko beharrezkoa den berrirekitze segurua behar dugu, irakasleak, funtsezko faktore gisa, txertatuta egon daitezen eta ahalik eta segurtasun handienarekin laneratu ahal izan daitezen.

tipo de expectativas. No se puede utilizar el proceso de desarrollo de un pacto de esta naturaleza como una mesa de negociación en el que alguien va a meter sus reivindicaciones o introducir sus líneas rojas educativamente hablando si se quiere llegar realmente a un documento que pueda ser rico, interesante, que motive a la comunidad educativa. Yo quería transmitir además que es muy importante que las organizaciones a las que representáis estén perfectamente informadas del proceso porque las personas que sientan en el trabajo van desarrollando unas cercanías pero la organización que tú representas tiene que ir al mismo ritmo. Si no es así se puede llegar al final del acuerdo o a la firma (en Aragón hubo una firma final) en el que la persona que represente a la organización esté de acuerdo en firmarlo pero la organización no.

Por eso es muy importante acompasar a las organizaciones en el desarrollo y que se sientan elementos activos para que no se produzca una distorsión en el inicio, en el desarrollo y en el final del documento.

Empatía, motivación e ilusión en el hecho de que algo se va a conseguir, que seguro que lo conseguimos.

Bloque 4

En un Pacto Educativo seguramente es complejo llegar a diagnosticar y priorizar aquello que unívocamente consideramos que ha de transformarse para mejorar nuestro sistema y qué aspectos hay que dejar, de momento, al margen para no bloquear el avance.

Pero seguramente resultará más difícil todavía consensuar *"cómo"* llevar a cabo esos cambios que llegamos a asumir transversalmente como reto un colectivo.

Hablando de procedimientos y procesos, y desde vuestro bagaje como constructores de acuerdos, ¿qué claves metodológicas consideráis imprescindible para, desde el debate, llegar al consenso?

¿Qué recomendaciones funcionales sobre qué promocionar y qué evitar consideráis que conviene tener muy presentes para acercarnos todo lo posible a ese Pacto educativo?

4.1. Respuesta de Encarna Cuenca Carrión

Los procedimientos elegidos en este tipo de procesos son esenciales para llegar al consenso, como se apuntaba en la introducción a esta pregunta. Puedo poner el ejemplo del Consejo Escolar de Valencia que debía acordar, en un momento dado, su metodología de trabajo y sus líneas programáticas.

Se decidió que lo primero que necesitaban los consejeros y consejeras era formación para aprender a escucharse, a expresarse y a tomar decisiones conjuntas. Se activó una comisión de consenso, a la que se apuntaron todos los interesados e interesadas para recibir formación de la facultad de sociología de Valencia.

El resultado fue interesante: consiguieron consensuar 10 líneas de trabajo que tenían como punto central al alumnado y a partir de ahí, se abría a la familia, a los aprendizajes no formales y la formación no reglada, al centro educativo… Tras los primeros acuerdos, se aislaron en una casa en la que intentaron que cada uno aportara sus conocimientos o experiencias, que debatieran sobre las ideas que iban surgiendo. Trabajaron durante dos días con un compromiso: las propuestas que no satisficieran a todos, no serían consideradas. Y alcanzaron el consenso para 343 propuestas de acción tras unos debates intensos en los que se pusieron en el lugar del otro para llegar a una convergencia. Y en el camino se reconocieron y se comenzaron a mirar y ver de otra manera, se acercaron personalmente.

4.2. Respuesta Jesús Garcés

Empiezo cómo acaba Encarna; es importante tener unas relaciones personales cercanas ya que somos consejeros y consejeras que estamos en un ente de participación y lógicamente se hacen relaciones personales como todo en la vida, como cualquiera que participe en una organización de cualquier tipo, las alianzas que se hacen en el trabajo cotidiano. Éste además es un trabajo intenso que tiene ya marcado un itinerario, un análisis, unos grupos de trabajo y una metodología. En el caso de Aragón fue importante también la consultoría externa que ayuda porque a veces nos empecinamos y bloqueamos y es bueno que alguien de fuera del ámbito descongestione y sitúe la realidad en un momento determinado. También es importante que los grupos no sean excesivamente grandes pero que estén todos los sectores. En Aragón eran cuatro grupos de 8 a 10 personas. La realidad fue que el pacto social salió y que hay un pacto político porque en marzo del 2019, dos meses antes de las elecciones autonómicas, las Cortes de Aragón llegaron por unanimidad a unas bases para un Pacto por la Educación en Aragón. Los siete grupos parlamentarios que había entonces en las Cortes de Aragón llegaron a un acuerdo en una serie de puntos que algunos piensan que son generales pero a mí me parece que son muy importantes sobre equidad, calidad, participación, profesorado, educación infantil, formación profesional, medio rural y financiación.

Tiene sentido el acuerdo y tiene resultados otra cuestión es que la realidad política o los tiempos políticos a los tiempos del devenir de los acuerdos a veces no coinciden pero no hay que desesperarse en esos momentos.

Las Cortes a parte del documento que presentó el Consejo Escolar de Aragón escuchó a muchos ponentes, directores, inspectores.

Redacción de marzo de 2019 (sin embargo se empezó en octubre de 2015):."*Presentamos este dictamen con el objetivo de que sirva de guía para futuros acuerdos parlamentarios y para que la toma de decisiones desde el Ejecutivo cuente con un respaldo consensuado que en cuestiones básicas permita blindar la educación ante algunas adversidades y dotarla de cierta estabilidad con independencia de cuál sea la composición del Parlamento y el Gobierno de Aragón*".

4.3. Respuesta de Manuel Martín Iglesias

Se necesita un espacio de dialogo (el CEN). Lograr un debate ordenado a través de los puntos clave: Planificación, calidad, equidad y participación.

Los agentes educativos reunidos definen, buscan los objetivos y prioridades educativas en los escenarios adecuados.

Este Pacto Social por la Educación tiene que ser labor de todos y nunca mérito de nadie en particular. Ahí está el éxito. Y con esa pedagogía debe ir posteriormente al Parlamento, no es el pacto de un gobierno, es un acuerdo para futuras generaciones.

Soy y creo que somos conscientes de que no será posible pactar sobre todo lo pactable. Tal vez ni siquiera es necesario. Pero sí es urgente pactar sobre los temas de mayor alcance para el futuro y de mayor preocupación de la ciudadanía, así como sobre algunas reglas del juego para poder progresar en un marco de estabilidad que esté protegido de cambios de gobierno y electoralismo en general.

Los grupos políticos tienen la oportunidad de revertir este círculo vicioso de inercias y rigideces del sistema educativo que penalizan con especial crudeza al alumnado socialmente más desfavorecido. Su apuesta por ver más allá de los ficticios costes electores y entender los enormes beneficios sociales y económicos potenciales podría ser la palanca que desbloquee esta situación.

Mahai-ingurua 2

Hezkuntza itun bat posible egiteko gakoak

Moderatzailea: Koldo Sebastián del Cerro

Parte hartzaileak:: Encarna Cuenca Carrión (Estatuko Eskola Kontseiluko burua), Jesús Garcés Casas (Aragoiko Eskola Kontseiluko burua), Manuel Martín Iglesias (Nafarroako Eskola Kontseiluko burua)

Arratsalde on, guztioi.

Saioa hasteko, bigarren mahai-inguru bat eginen dugu, hezkuntza itun bat posible egiteko gakoei buruzkoa.

Gai horri heltzeko, Encarna Cuenca, Jesús Garcés eta Manuel Martín ditugu hemen.

Encarna Cuenca Carrión

Estatuko Eskola Kontseiluko gaur egungo lehendakaria da.

Europako Hezkuntza Programen erakunde autonomoko zuzendaria izan da; "Bizialdi Osoko Ikaskuntzako" zuzendariorde nagusia; Europako Hezkuntza Programen erakunde autonomoko Erasmus Saileko zuzendaria; Sócrates Agentziako zuzendaria eta Europako Hezkuntza Programen Zuzendariordetza Nagusiko Zentroen Erregistroko burua; eta Europako Hezkuntza Programen arduraduna.

Horrez gain, Valentziako Erkidegoko Kultura, Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritzako Valentzieraren Irakaskuntza eta Erabilera Kabineteko itzultzailea izan da.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan irakasle aritu da.

2015eko irailetik Estatuko Eskola Kontseiluko lehendakari izendatu zuten arte, Valentziako Erkidegoko Eskola Kontseiluko lehendakaria izan da, eta, Autonomia Erkidegoetako Partaidetza Batzordeko kide gisa, Estatuko Eskola Kontseiluaren lan eta eztabaidetan parte hartu du.

Jesús Garcés Casas

2018az geroztik, Aragoiko Eskola Kontseiluko lehendakaria da, hau da, Aragoiko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako aholkularitzako eta gizarte partaidetzako organo gorenekoa. Irakasle ikasketak egin zituen, Giza Zientzietan espezializatuta. Horrez gain, Filosofia eta Letretan lizentziatu zen, Geografia eta Historia espezialitatean. Halaber, Entzumen eta Hizkuntzako graduatu ondokoa egin zuen.

Maisu-maistren kidegokoa da eta espetxeetan eta Zaragozako Torre Ramona ikastetxean aritu da irakasle lanetan.

Zaragoza probintziako Langileen Batzordeko lehendakaria izan da eta sindikatuen esparruan hainbat ardura izan ditu.

Hezkuntza Departamentuan hezkuntza programa berritzaileak ezartzen lan egin du; helduen hezkuntzako aholkulari teknikoa izan da; urrutiko hezkuntzako unitateko burua; eta aniztasunari erantzutearen arloko aholkulari teknikoa.

Gainera, 2015-2017ko aldian Berrikuntza, Ekitate eta Partaidetzako zuzendari nagusia izan da, baita ospitale ikasgeletako maisua ere.

Manuel Martín Iglesias

2019ko irailaz geroztik, Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria da; hau da, gure erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako aholkularitzako eta gizarte partaidetzako organo gorenekoa.

Bere prestakuntzari dagokionez, Gorputz Hezkuntzako irakasle ikasketak egin zituen Zaragozako Unibertsitatean.

1983an sartu zen maisu-maistren kidegoan eta Nafarroako hainbat ikastetxetan aritu zen irakasle lanetan.

1995etik 2019ra, Víctor Pradera ikastetxe publikoko zuzendaria izan zen –gerora Paderborn–Víctor Pradera deitu zitzaion–.

Garai hartan, ikastetxea Gorren Haur eta Lehen Hezkuntzako Lehentasunezko Ikastetxe bilakatu zen eta lehen harrera planak ezarri zituen. 2004an, ikastetxea kalitate sarean sartu zen, eta N4C sareko aitzindaria izan zen Haur eta Lehen Hezkuntzan. 2016an, “ikastetxe bikain” zigilua lortu zuen. 2012an, AIP hezkuntza programa sortu zuen, gaztelania-alemana irakaskuntza elebiduna, ingelesa barne, eta oraindik hiru hizkuntza horietan irakasten duen Espainiako ikastetxe publiko bakarra da. Hezkuntza proiektua arrakastatsua izan zen, ikastetxea eraldatu zuen eta matrikula kopuru handia eragin zuen.

Horrez gain, ADIPNA Zuzendarien Elkartearen sortzailea da.

Demokraziaranzko trantsiziotik, azken 40 urteetan, 8 hezkuntza lege orokor onartu dira: bat UCDrena (1980), bi PPrenak (2002 eta 2013), lau PSOErenak (1985, 1990, 1995, 2006), eta, azkena, koalizio gobernu batekin (PSOE-Unidas Podemos), 2020an.

Ez dut uste esajeratuko dudanik esaten badut horietako bakar bat ere ez dela herritarrek zeharkako eta bateratzailetzat jo dezaketen hitzarmen, adostasun edo itun baten ondorioz sortu.

Hitzartzea, adostea, ituntzea… Hitz horiek intentziozko joera bera dute, esanahietan ñabardurak egin daitezke, baina, gaur, partekatzen duten esanahia erabiliko dugu guztiak biltzeko; hots, "hezkuntzaren kalitatearen" alde bat egitea.

Itxuraz, garbi dago "hezkuntzaren kalitatea"-ren esanahiari buruzko ikuspegi komunitario batera iristea funtsezkoa dela.

Eta, horretarako, agian, hausnarketa bat egin beharko da, batera eta teknikoki; curriculumari, aniztasunari erantzuteari, ikastetxeen kudeaketari, hizkuntzei, finantzaketari eta Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Lege bat sortzeko legedi bati buruzko hausnarketa. Baliteke hori ezinbestekoa izatea hezkuntzaren aldeko gizarte itun bat lortzeko.

1. multzoa

Zergatik behar dugu hezkuntza itun bat eta zertarako lortu behar da?
Inplikatutako eragile guztiak oinarrizko bi galdera horien erantzunean bat etortzeak zer balio du, zuen ustez?
Horri dagokionez, gutxieneko abiapuntu komun bat behar da?

1.1. Encarna Cuencaren erantzuna

Hezkuntza itun baten beharrak bi iturburu ditu. Alde batetik, Espainiako politikarentzat, Espainiako hezkuntzarentzat, ituna eskuratu beharreko Itaka bat bihurtu da, mantra bat, lortzen ez bada Espainiako gizartea zapuztuko duen gizartearen beraren helburu bat.

Bestetik, nire ustez, autonomia erkidegoetako hezkuntza politikak garatzeko esparru komun bat edukitzeko beharrari erantzuten dio. Hala ere, nire ustez, aurrerapauso txikiak egiten ari dira, adostearen garrantzia azpimarratzen ari diren hitzarmen txikiak.

Itun horren xedeari dagokionez, gaur goizean adierazitakoei "e" bat gehituko nieke: kontsulta, koordinazioa eta komunikazioarekin batera, erantzunkidetasuna barne hartu behar dela uste dut. Nire ikuspuntutik, hezkuntza ez da eskolan bakarrik gauzatzen; beraz, hitzarmen bat lortu nahi denean landu beharreko hezkuntza gaiei (curriculuma, kudeaketa, legeen garapena…) erantzunkidetasuna gehitu behar zaie, gutako bakoitza hezkuntzaren parte

garelako; izan ere, haurrek imitatuz ikasten dute, gu guztiongandik ikasten dute. Ondorioz, guztiok gara eskolako kide, guztiok –bakoitzak dagokion lekutik– lagundu behar dugu ituna garatzen.

1.2. Jesús Garcésen erantzuna

Nafarroako hezkuntza komunitate osoari agur, Aragoiko Eskola Kontseiluaren izenean. Jakina, eskerrik asko Manuel, gonbidapenagatik; plazera da gugandik hain gertu dagoen eta antzeko arazoak dituen komunitate honekin lan egitea. Horrez gain, kontseilaria agurtu nahi dut, Eskola Kontseiluaren barruan –kasu honetan, Nafarroakoan– horrelako elementu bat bultzatzeagatik.

Aragoiko Eskola Kontseiluaren esperientziaren arabera, aurrera egiteko hezkuntza itun bat behar da. Gure kasuan, 2015ean hauteskundeak egin berriak ziren, tentsioak eragin zituen gobernu batetik gentozen, LOMCEk lau urte horietan egindako murrizketa elementu oso indartsuak zituen. Orduan, hezkuntza komunitateak egonkortasuna lortu nahi zuen. Carmen Martínez Urtasun buru zuen 2015eko Eskola Kontseiluari itun sozial eta politiko bat lortzen saiatzeko aukera planteatu zioten Javier Lambán Gobernuko presidenteak eta Maite Pérez kontseilariak. Gizarte alderdiarekin, gizarte eta hezkuntza alderdiarekin, has daiteke. Aragoin, 2015eko urrian bultzada politikoa jaso zuen eta egoeraren diagnostikoa egin zen. Eskola Kontseiluko kide guztiek hezkuntza ereduak abiapuntuan dituen ahuleziak eta indarguneak aitortzea komeni da. Azken hamar urteak aztertuta, 2005etik 2015era artekoak, Eskola Kontseiluak lan dokumentu bat egin zuen, abiapuntuko elementu guztiak ikusteko (eskolatzea, irakasleen prestakuntza…) eta, horrela, guztiok dokumentu beretik abiatu ahal izateko.

Elementu horiekin batera, departamentuak aurkeztu zigun beste dokumentu bat geneukan; dokumentu horretan, zehazki, departamentuaren ustez itunak eduki behar zuen abiapuntua zehazten zen, hausnartu eta lan egiteko orduan kontuan hartu zedin.

2015aren amaieran, lau lantalde eratu ziren, sektore guztietako kontseilari guztiak partaide zirela (8-10 pertsona) eta modu intentsiboan lan egiten hasi zen; ia urtebete iraun zuen lan horrek. Ahalegin handia egin zen eta Carmen Martínez Urtasun lehendakariak zuzentzen eta koordinatzen zuen taldea funtsezkoa izan zen, egiten ziren lan guztiak etengabe berrelikatu behar zituelako. Horrez gain, kanpoko aholkularitza enpresa baten laguntza ere jaso zen, adostasunetara iristeko; izan ere, lantaldeetatik ateratzen zen dokumentu orok kontseilari horien % 100en babesa izan behar zuen. Idazketa oso garrantzitsua da ahalik eta adostasun handiena lortzeko.

Ia-ia 2016ko azaroan geundela, 249 neurri biltzen zituen hezkuntza arloko gizarte itun baten dokumentua onartu zen. Neurri askok adostasun han-

dia eragin zuten –inklusibitateari buruzko dekretuak, eskolatzeari buruzko dekretuak, landa eskolaren behatokiak, bizikidetzaren behatokiak, ikastetxe guztietan bizikidetzaren aldeko eta eskolako jazarpenaren aurkako talde bat izateak, eskolako jazarpenaren aurkako planak eta unibertsitatearekin baterako prestakuntzak, besteak beste– eta horietako asko garatu egin dira. Edozein ahalegin egiten denean, hasieratik enpatia eta eraikitzeko asmoa baldin badaude, aurrera egiten da, eraiki egiten da eta, beraz, dokumentu batean islatzen denean, agian ez da % 100eko adostasuna lortuko, ezta % 80 edo 70ekoa ere, baina bide horrek guztiak hezkuntza komunitatea aberastuko du, eta, jakina, Hezkuntza Departamentua ere bai.

1.3. Manuel Martínen erantzuna

Hezkuntza funtsezko eskubide bat da. LODEk (Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoa), 1985ean onetsiak, 16 urte arteko hezkuntza unibertsalizatu zuen. Orduz geroztik, hezkuntza sistema arautzeko hainbat lege onartu dira: LOGSE, LOCE, LOE, LOMCE eta LOMLOE. Lege horiek guztiek etengabeko aldaketak ekarri dituzte eta irakasle, ikasle eta familiei eragin diete.

Hala ere, hezkuntza funtsezko eskubidea izanik ere, gobernuek, Estatukoak eta autonomia erkidegoetakoek, desberdin gauzatu dute eskubide hori eta, gauzak horrela, askotariko ikusmoldeak, lehentasunak eta berezitasunak dituzten hezkuntza sistemak eta ereduak ditugu gaur egun, eta, horrek guztiak, gobernuak txandakatzearekin batera, ereduak jarraipena izatea eragotzi du. Hartara, eskumen arloko lidergoari uko egin gabe, hezkuntza sistemaren egonkortasun egokia bermatzeko akordioak eta adostasunak lortu behar dira.

Era berean, gaur egungo krisiak hezkuntzarako eskubidearen ahulezia agerian utzi du. Lehenago, aurrekontuetako murrizketek arrakala soziala eta lurralde mailakoa ireki zuten; hezkuntzan behintzat itxitzat ematen genuen arrakala. Ildo horretan, Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuetan gauzatutako hezkuntzako inbertsioaren murrizketak honako hauek ekarri zituen:

- hezkuntza azpiegituren falta izatea,
- irakasleen lan baldintzak okertzea,
- enplegua prekarizatzea,
- gizarte kohesioko neurriak desagertzea,
- landa eskola babesgabe uztea,
- partaidetza ahultzea eta, azken batean,
- hezkuntza komunitate osoa integratuz kalitatezko, ekitatezko eta gizarte eta lurralde kohesiozko hezkuntza eredu bat bermatu ahal izateko lidergo politikoaren falta.

Hezkuntza estrategiak, orain, bi ezegonkortasun iturri ditu: ziklo politikoa eta ziklo ekonomikoa. Ziklo politikoari dagokionez, gobernuko alderdia aldatzen den aldi oro erreformak eta kontrarreformak egiten dira; ziklo ekonomikoari dagokionez, berriz, zailtasun ekonomikoak sortzen diren bakoitzean, hezkuntzan eta zientzian inbertsioari galga jartzen zaio, eta, beraz, herrialde aurreratuenekiko gure konbergentziari ere bai. Bi ezegonkortasun iturri horiek saihestu behar ditugu.

Espainian eta Nafarroan gero eta agerikoagoa da hezkuntzan itun politiko eta sozial handi bat lortzeko beharra dagoela, besteak beste, arazo hauek konpontzeko: eskola porrot handia eta gazteek eskola garaia baino lehen uztea. Izan ere, gaiaren inguruko txosten guztiek ohartarazten dute arazo horiez. Gainera, arau egonkorrak behar dira, kalitatezko eredu sendo bateranzko urratsak egiteko, uneko gobernua edozein delarik ere.

- Hezkuntza eredu malgu eta zeharkako bat lortzea da asmoa, ikasle orok gauza bera egitea eskatuko ez duen eredu bat, ekitatean eta kalitatean, ahaleginean eta merezimenduan oinarritua.
- Hezkuntzaren helburua, etapa guztietan, pertsonei prestakuntza osoa ematea da: herritar libreak izateko eta mundu profesional zorrotz batean moldatzeko prestakuntza ematea eta, horretarako, ez da aski irakaskuntzako erakundeek egiten duten ahalegin handia. Aitzitik, langintza horretan eragile guztiek hartu behar dute parte: irakasleek, ikasleek, irakasle ez diren langileek eta familiako zein ingurune sozialeko kideek.
- Hori guztia hobetu behar dugu adierazle hobeak erdietsi nahi baditugu. Herritar on eta profesional onen belaunaldiak behar ditugu etengabe.
- Horretarako, irakasleen rola ezinbestekoa da eta, horrenbestez, maila guztietan aintzatetsi behar ditugu eta, orobat, haien lan arduratsua kalitatezkoa eta ilusioz egindakoa izatea bultzatu behar dugu.
- Ezinbestekoa da gizarteak jakintza eta sormena komunikatzeko baliabide eta ingurune egokiak ematea.
- Ezinbestekoa da ahalegintzearen balioa aitortzea eta lantzea.
- Ezinbestekoa da familiek balio horiek transmititzea, bizikidetza demokratikoaren eta bizitzarako jakintza eskuratzearen balioekin batera.
- Eta, orobat, ezinbestekoa da ikasleek beren ikaskuntzarekiko konpromisoarekin ilusioa izatea. Horretarako, aldeko giroa sortu behar dugu gizartean; egiten ari garen horretan konfiantza izan behar dugu. Eta horrek hezkuntza maila guztietarako balio du, gainera. Hala, ezbairik gabe, adierazle hobeak erdietsiko ditugu, hezkuntza hobea izanen baitugu.

Hezkuntza itun baten beharraren zergatiarekin ados egotea oso garrantzitsua da, horren erabateko premia dakarrelako berekin. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke, eta analisian bat etorriz gero, horrek esan nahi du sektoreen hausnarketa heldua dela, oso beharrezkoa eta premiazkoa, eta batzen gaituen hori biltzen duela; elkargune hori oso zabala da, gainera.

Nire ustez, gutxieneko abiapuntu komun bat behar da. Lehenik eta behin eskola arrakasta eta porrota definitu behar dira, hezkuntza itun bat eraikitzeko eta gauzatzeko aukerak sakon ulertzeko, baita itun hori ez egiteak dituen ondorioak ere.

Eskola arrakasta Espainiako hezkuntza sistemako ikasle guztiek honako bi lorpen hauek egitea izanen litzateke:

- Oinarrizko derrigorrezko ikasketak osatzea eta, ikasle bakoitzaren adin egokian, derrigorrezkoaren ondoko ikasketetan matrikulatuta egotea.
- Funtsezko gaitasunetan oinarrizko mailak eskuratzea, Europako Batzordearen Gomendioaren esparruan, honako hauek barne: (I) ama hizkuntzako gaitasuna; (II) atzerriko hizkuntzako gaitasuna; (III) matematika eta zientziaren arloko gaitasunak; (IV) gaitasun digitala; (V) ikasten ikasteko gaitasuna; (VI) gaitasun sozial eta zibikoak; (VII) ekimena eta ekintzailetza espiritua; (VIII) kultur gaitasun eta adierazpena. Gaitasun horiek arrakastaz eskuratzeak ikasle guztien gizarteratzea eta laneratzea bermatzen du.

Gainera, jarraian, beste hiru alderdi hauek aipatu ahal ditugu: bata, teknikoa da (Nafarroako hezkuntza sistemaren hamarkada bateko azterketa, gure indarguneak eta ahuleziak ezagutzeko, eta ituna eztabaidatzen hasteko zirriborro eskematiko bat); beste bat, logistikoa (pertsona batzuek adostasunak eta desadostasunak idatziz jasotzea eta azken horiek arintzen joatea, adostasuna lortzeko); eta, azkenik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren (NEK) serieko ezaugarria, hau da, prestasuna, adostasuna lortzeko nahia eta konfiantza, besteari entzuten jakitea, batzen gaituen horretan arreta jarriz.

2. multzoa

Batzuetan, liskarrak elikatu eta lehendik zeuden adostasunak hondatzen dituztenek hezkuntza arloko elkarrizketa bahituta daukatela ematen du.

Eta, deigarria bada ere, eztabaida publikoak lortutako adostasun kotak alde batera uzteko joera du, adibidez: Gabilondo ministro ohiaren agintaldian lortutako akordioen kasuan edo Diputatuen Kongresuan hezkuntzaren aldeko itun baterako Azpibatzordean sortutakoen kasuan.

Zeharkako akordio teknikoa eta politikoa lortu duen neurri zehatz bat Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko estaldura handitzea izan da eta horrek, gainera, Europako Batzordearen, NBEren, UNESCOren eta ELGAren babesa jaso du.

Gai horren inguruan sortu den adostasun handiaren ondorioz, gure herrialdeko hezkuntza sistemak azken 20 urteetako hedapen handiena izan du, hala, 2001ean 0-3 urte bitarteko eskolatze tasa garbia % 8,9koa izatetik 2021ean % 41ekoa izatera igaro da.

Bistakoa dirudi, beraz, akordio zabal bat lortzeak eragin positiboa duela.

Antzeko zerbait gertatzen da Lanbide Heziketari buruzko Legearekin, zeinak osoko zuzenketarik ez jasotzea lortu duen…

Nahiz eta hutsetik ez hasi eta gure hezkuntza sistemak indargune garrantzitsuak izan, lagungarria izan daiteke gure ahaleginak hezkuntza sistemaren ahulezia larrienak behar bezala identifikatzera bideratzea?
Kasu horretan, zein izanen lirateke hobetu daitezkeen eta hezkuntza itun bat premiazkoa egiten duten funtsezko alderdi horiek?
Azken batean, "zer" aldatu nahi dugu eta "zeri" buruzko adostasun batera iritsi behar dugu? Edo, bestela esanda, zein dira elkartzen gaituzten ideiak, eraldaketa horren oinarri izanen diren kontzeptu bateratzaileak?

2.1. Jesús Garcésen erantzuna

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut ahuleziak eta indarguneak identifikatu behar direla; izan ere, hezkuntza komunitateetan, gaizki egiten duguna bakarrik ikusteko joera handia daukagu, baina gauza batzuk ongi egiten ditugu. Aragoin egin zen lana lau edo bost ataletan banatu zen eta, Nafarroaren kasuan, horiek eguneratzea komeniko litzateke, 2015/2016az ari garelako. Zehazki, honako atal hauetaz ari naiz: kalitateaz, ekitateaz, hezkuntzaren arloko partaidetzaz, plangintzaz eta aurrekontuen egonkortasunaz. Horiexek izan ziren Aragoiko Eskola Kontseiluan gehiengo oso handi batek onartutako 249 ekintza zehatzak lantzeko bost ardatzak.

Elementu horiek guztiek indargune eta ahulezia batzuk zituzten, eta eraiki beharra zegoen. Asko eztabaidatu zen beka ereduari buruz, eskola materialaren inguruko beka ereduari buruz, hezkuntza berrikuntzari buruz, eskolatze batzordeen zereginari buruz, sareen orekari buruz, irakasleen prestakuntzari buruz, irakaskuntza karrerari buruz eta funtzio publikorako sarbideari buruz. Lantaldeetan lantzen ziren gai guztiek adostasun jakin batera eramaten zuten, Eskola Kontseiluaren osoko bilkuratik igarota. Alderdi horiek, jakina, berekin zekarten talde horietan parte hartzen zuten kontseilarien % 100ek gaiaren idazketa onartzea; beraz, egia da batzuetan ekintza elementu batzuen inter-

pretazioa zehazteke geratu zela eta hori sektoreek egin behar dute. Hau da, hemen ez dira negoziazio mahai sektorialak edo familien mahaiak gainjarri. Negoziazio eremu bakoitza errespetatu da. Hemen, garatu zitezkeen gehieneko akordioak lantzen ziren. Horrek, jakina, parte hartzeko eta eraikitzeko nolabaiteko segurtasuna eman zuen.

Ahuleziak ere bagenituen eta izaten jarraitzen dugu. Adibidez, ikastetxeetako teknologien gaiari buelta bat eman behar zaio. Begira, partaidetzaren rola hain da garrantzitsua, ezen orain, Aragoin, itunetik sortu ziren parte hartzeari buruzko alderdiak indartzen dituen lege bat, hezkuntza komunitatearen partaidetzari buruzko legea, Gorteetara eramanen den.

Hortik hezkuntzari buruzko lege bat ateratzea gustatuko litzaidake, beharrezkoa delako, baina hala ez bada ere, adostasun elementu asko aterako dira. Metodologia hori indartu behar da prozesu osoan.

2.2. Manuel Martín Iglesiasen erantzuna

Ahaleginak ahuleziak identifikatzera bideratu behar direla esatea gehiegizkoa da. Argi dago detektatu egin behar direla, eta, horretarako, Nafarroako hezkuntzaren azken hamarkadako egoeraren balantze-azterketa bat egin dugu, hezkuntza adierazleetan oinarrituz, baina hori, lehen aipatu dudan bezala, hasierako alderdi bat da, baina muina sor daitezkeen adostasunak dira. Eta adostasun horiek ahuleziak konpontzeko izan daitezke, baina baita indarguneak indartzeko ere, horiek ez baitira inoiz ahultzen utzi behar. Adierazle bakoitzak azken 5 urteetan izan dituen joerak oso garrantzitsuak dira, laneko helburu zuzenak zein diren eta zeintzuk ez adierazten dutelako eta hortik abiatuz adostu ahal diren ekintzarik onenak zein diren zehaztu daitekeelako.

Nire ustez, hezkuntza itunak, horrek biltzen duen adostasun osoa aintzat hartuta, ekarriko digu hezkuntza eredu malgu eta zeharkakoa edukitzea, ikasle orok gauza bera egitea eskatuko ez duen eredu bat, ekitatean eta kalitatean, ahaleginean eta merezimenduan oinarritua. Nire ustez, ahuleziak konpondu ez ezik, indarguneak indartu egin behar dira, eta horien bidez, honako hauek erabaki:

- itxuraz ahulgune bat den eskolatzeari dagokionez (Haur Hezkuntza, Derrigorrezkoa eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza):
  - → atzerriko ikasleei buruz,
  - → ikasleei buruz, taldearen, irakaslearen arabera,
  - → lanbide heziketari buruz,
  - → atzerriko hizkuntzen ikaskuntzari buruz,
  - → hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei buruz,
  - → horiek sare eta ereduen arabera modu orekatuan banatzeari buruz,
  - → Irakasleen kasuan, honako alderdi hauek aztertu behar dira: irakasleek

gaur egungo gizartean duten rola, gizartean eta pedagogian duten rolari balio handiagoa emateko neurriak, irakasleen banaketa, etengabeko prestakuntza, ikastetxeetako proiektuetako partaidetza, ikastetxeen autonomia, lidergoa eta ardura.

- Hezkuntzaren finantzaketari dagokionez: hezkuntza sistema arrakastatsuekin bat datorren hezkuntza inbertsio publiko bat finkatu behar da (BPGaren % 7ko inbertsiora hurbildu eta hezkuntza gastutzat jo beharrean inbertsioa dela pentsatu) eta gastu horrek eraginkorra izan behar du.
- Hezkuntza emaitzei dagokienez:
  - → funtsezko gaitasunak bermatu behar dira,
  - → egokitasun tasak hobetu, batez ere 10 urtekoenak eta 14 urtekoenak,
  - → errepikapenak murriztu, hezkuntza goiz uztea saihestu, bide alternatiboen bidez,
  - → graduazio tasak hobetu, batez ere erdi mailako LHn,
  - → prestakuntza maila hobea duen populazioaren jarduera eta enplegu tasa hobetzea.

Begien bistakoa da hezkuntza gizarte ereduaren parte dela eta demokrazia bateko herritarren profila jada eratuta dagoela, beraz, ezin dugu luzaroago jasan "alde txikien nartzisismoak" berekin dakarren higadura.

Herritarrak nahigabetu egiten ditu hezkuntzaren arloko mezuen balioa mezulariaren arabera handiagoa edo txikiagoa izateak.

HEZKUNTZA ituna saihestezina da, baina, hasieran, partida taula berri baten gainean jokatu behar da, hezkuntzan murgilduta dauden sektore guztiak ordezkatuko dituen mahai batean, hots, Eskola Kontseiluan. Hezkuntzaren aldeko itun sozial hori NEKek adostasuna lortzeko egiten duen ahaleginaren emaitza izanen da; adostasuna bilatzea NEKen berezko ezaugarria da eta beharrezko jomuga hori lortzeko gune apropos eta beharrezkoa bihurtzen du.

Akordioak funtsezko hiru ardatz barne hartu behar ditu.

- Lehenengoa finantzaketa da. Lehentasuna izan behar du. Hezkuntzan, kulturan eta etorkizuneko belaunaldien garapenean inbertitzea banketxeak eta autobideak erreskatatzea baino garrantzitsuagoa da, adibidez. Hori argi ez badago eta hezkuntza akordioan islatzen ez bada, ez da hezitzailea izanen. Barne produktu gordinaren % 7 inbertitu behar dugu hezkuntza sistema hobetzeko eta ehuneko hori Konstituzioan blindatu, ezein gobernuk murrizterik izan ez dezan. Eta inbertsio horren eraginkortasuna finkatu behar da.
- Bigarren ardatza kontzientzia askatasuna da. Hezkuntzak laikoa izan behar du eta bai erlijioren batean sinesten dutenak bai erlijioetan sinesten ez dutenak errespetatu behar ditu. Horrek esan nahi du erlijio orok eta erlijio adierazpen orok ikastetxeetatik kanpo egon behar duela, dogmarik gabe hezi behar dela eta eskolako edukietan ez dela inongo adoktrinamendurik

barne hartu behar. Erlijioek, herritar gehienek horietan sinetsi arren, gizarte zibilean bete behar dute dagokien lekua, ez ikastetxeetan. Fedea lantzeko eta adierazteko gune egokia gurtzarako lekuak dira. Hezkuntza edukiek ezin dute sinesmenetan oinarritu, zientziaren, hausnarketaren eta giza eskubideen aurrerapenaren emaitzetan baizik.

- Eta, hirugarrenik, ezinbestean, itunak guztien ongiaren ikuspegian oinarrituta egon behar du. Horrek esan nahi du Itunean honako hau islatu behar dela: hezkuntza publikoak bermatzen duela jatorri soziokultural desberdineko pertsonek hezkuntzarako eskubide unibertsala gauzatzea, berdintasun eta bizikidetza demokratikoko baldintzetan, inolako bazterkeriarik gabe, ez jatorri sozial edo kulturalekorik, ez sinesmen, genero, sexu joera edo beste edozein ezaugarri pertsonalekin lotutakorik.

2.3. Encarna Cuenca Carriónen erantzuna

Nire mahaikideek esandakoaz eta gaur goizean hemen esandakoaz gain, gure hezkuntza sistemaren kalitatean nahitaez eragiten duten hezkuntzaren alderdi ez formalak azpimarratu nahi nituzke.

Aurretik, gai global batzuen garrantzia aipatu da, hala nola klima aldaketarena edo digitalizazioarena, baina ingurunearekin, alderdi lokalarekin, lotutako beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar ditugu. Hezkuntzaren argazki finko bat imajinatzen badugu, zooma zabaltzen den heinean herrialdeen, autonomia erkidegoen, herrien eta ikastetxeen artean desberdintasunak ikusten direla konturatuko gara, eta hori, esatea zilegi bazait, Nafarroako Eskola Kontseiluaren itunari buruzko testuetan jaso beharko litzateke. Tokian tokitik abiatuz, aldaketa hori eragiteko gai izan beharko genuke. Eta ingurunearen garrantzi horrek gure hezkuntza sistemako defizit batekin, ahulezia batekin, talka egiten du, Eskola Kontseiluak ere aipatu duen batekin; hots, parte hartzearen arlokoarekin.

Ikastetxeetako eskola kontseiluak bultzatu behar dira, eta, ondorioz, familien, ikasleen eta irakasleen partaidetza. Ikastetxe bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak aztertzeko gai izan behar dugu, eta bere ingurunearen elkarlana bilatu behar dugu, udal eskola kontseiluek hezkuntzan bete behar duten rol garrantzitsua indartuz, baita haiek ematen dituzten baliabideak ere, adibidez: liburutegiak, antzokiak… Jakin badakigu kalitatezko aisialdiak eskola arrakasta hobetzen duela; beraz, kalitatezko denbora hori ematea, administrazioaren ardura ez ezik, ikastetxeena, familiena eta udalena ere bada. Baliabideak errentagarri bihurtzea da kontua, erantzukidetasunak gure gain hartuz justizia sozialaren eta guztion ongiaren alde egitea.

3. multzoa

Zuen ustez, zer jarrera eta jokabide hobetsi behar dira "guztion ongi" hori lehenesten duen itun bat lortzeko ahalegina egiteko orduan?
Zehazki, nola lor daiteke elkarrengana hurbiltzeko eta bat egiteko "prestasuna" indartzea eta, era berean, manikeismoa eta maximalismoak desegitea?
Eta nola elika daiteke ados ez daudenen arteko "konfiantza", mesfidantza eta errezeloa murrizten laguntzeko?

3.1. Manuel Martín Iglesiasen erantzuna

Etorkizuneko ikuspegia eta erantzukizuna behar ditugu, gogoan oinarritutako espiritua, esku artean duguna aurrera ateratzeko nahia, eta konfiantza. Besteak dioena entzuten jakin behar dugu. Elkartzen gaituen hori aurkitu. Pentsamendu positibo hori izanez gero, aurrera eginen dugu.

Hezkuntzaren aldeko itun sozial hori lortzea denon zeregina izanen da eta inoiz ez pertsona jakin baten meritua. Horixe da arrakastaren gakoa. Eta pedagogia horrekin joan behar du gero Legebiltzarrera; ez da gobernu baten ituna izanen, hurrengo belaunaldientzako akordioa baizik. Gizarteak hori eskatzen du eta alderdi politikoek ez dute huts egin behar; horretarako unea da. Elkartzen gaituena mahai gainean jartzeko fasean gaude; hori bereizten gaituena baino gehiago da, gainera.

NEKeko kide garen aldetik dugun rolaz ohartu behar dugu, eta, ituna saihestezina denez, gizarteak adostasun eta akordio hori espero ditu gugandik, eta, beraz, ezin dugu huts egin. Horretarako, prestasuna eta gogoa behar dira, eta hortik aurrera, dena errazagoa da.

Ezinbestekoa da NEKen barruan sortu den lan mahai bakoitzeko adoste prozesuan profesionalen partaidetza izatea; akordioak kanpora ateratzea, sektore bakoitzak bere egin edo ez erabaki dezan; berriz ere NEKera itzultzea, adostasun eta neurri berriei bide emateko, eta, horrela, azken itunera arte, zeina, azkenean, NEKeko askotariko sektoreek partekatu beharko duten. Akordioak lortzeko, beti leku egoki bat behar da.

Besteari entzuten jakiteak, konponbide bateratuak lortzeak, parte hartzeak, barruan sentitzeak eta erreparazio proposamenetan lan egin duten eragileak izateak proposatutako helburua lortzeko –hau da, ituna egitea– talde batu bat izatearen ideia indartzen dute.

Hori da konfiantza, zeinak esparru komunetatik abiatuz akordioak lortzeko ingurune apropos bihurtuko gaituen; agertoki egokietan hezkuntza helburuak eta lehentasunak lortzeko ingurune apropos.

3.2. Encarna Cuenca Carriónen erantzuna

Nire ustez, itun bat lortu ahal izateko, ezinbesteko osagai bat behar da: gure lana komunitatearentzako zerbitzu bat dela eta norbaiten egoera hobetzeak guztion aurrerapena dakarrela onartzea.

Eta hori bezain garrantzitsua da garbi izatea ez gaudela negoziazio mahai batean, baizik eta hausnarketa mahai batean, zeinetan guztion artean adostutako helburu oso zehatzak ezarri nahi diren, hezkuntza komunitate osoaren aldarrikapen bat izan daitezen eta gobernuek horiei entzungor egiterik izan ez dezaten. Nire ikuspegitik, funtsezkoa da azpimarratzea adostasunak erabatekoa izan behar duela, eta, horregatik, norbait proposamen batekin eroso sentitzen ez bada, hobe da bertan behera uztea, hari eustea baino.

Hurbilketa errazteko funtsezko beste elementu bat emaitza da. Partaidetza prozesu orok ahalegina aitortzea eskatzen du; akordioak lortzeko ahaleginean inbertitu den ilusioa, kasu honetan gertatu den bezala. Halakorik gertatzen ez bada, partaidetza maila jaitsi egiten da, ahaleginak saririk ez duenean, dela proposamen bat onartuz, dela azalpen adeitsu bat edo esker ona emanda uko eginez. Parte hartzeko ahaleginak merezi izan duela sentitu behar da beti.

3.3. Jesús Garcésen erantzuna

2015etik 2016ra bitarteko aldi egitekotsu hartan itunean lan egin zuen kontseilari orok ilusio eta motibazio handiz hitz egiten du itunaren garapenaz, baita, une jakin batean bestelako itxaropenak zituztelako, azkenean dokumentua sinatu ez zuten kideek ere. Halako itun bat garatzeko prozesua ezin da erabili norbaitek bere aldarrikapenak sartzeko edo bere marra gorriak ezartzeko negoziazio mahai gisa, baldin eta, modu hezigarrian mintzatuz, hezkuntza komunitatea motibatuko duen dokumentu aberats eta interesgarri bat lortu nahi bada. Horrez gain, ordezkatzen dituzuen erakundeek prozesuaren berri izatea oso garrantzitsua dela helarazi nahi nizueke; izan ere, lanean ari diren pertsonek hurbiltasun batzuk garatzen dituzte, baina norberak ordezkatzen duen erakundeak erritmo berean joan behar du. Hala ez bada, gerta daiteke akordioaren amaierara edo sinadurara iristean (Aragoin azkenean sinatu zen) erakundea ordezkatzen duen pertsona sinatzearekin ados egotea baina erakundea ez.

Horregatik, oso garrantzitsua da ituna garatzen ari den bitartean erakundeak erritmo berean joatea eta elementu aktibo sentitzea, dokumentuaren hasieran, garapenean eta amaieran distortsiorik gerta ez dadin.

Enpatia, motibazioa eta zerbait lortzeko ilusioa behar dira, lortuko dugun ziurtasuna.

4. multzoa

Hezkuntza itun batean, seguruenik, konplexua da diagnostikatzea eta lehenestea gure sistema hobetzeko eraldatu behar denari buruz zertan gauden ados eta zer alderdi utzi behar diren alde batera, momentuz, aurrera egitea ez eragozteko.

Baina, ziurrenik, are zailagoa izanen da denok erronka kolektibotzat hartzen ditugun aldaketa horiek "nola" gauzatu adostea.

Prozedurez eta prozesuez ari garela, eta akordioen eraikitzaile gisa duzuen esperientzian oinarrituz, zein gako metodologiko jotzen dituzue ezinbestekotzat eztabaidatik adostasunera iristeko?

Zuen ustez, sustatu beharrekoari eta saihestu beharrekoari buruzko zer gomendio funtzional hartu behar dira oso aintzat hezkuntzako itun horretara ahalik eta gehien hurbiltzeko?

4.1. Encarna Cuenca Carriónen erantzuna

Horrelako prozesuetan, aukeratutako prozedurak funtsezkoak dira adostasuna lortzeko, galdera honen sarreran adierazi den bezala. Valentziako Eskola Kontseiluaren adibidea jar dezaket, zeinak une jakin batean bere lan metodologia eta ildo programatikoak adostu behar izan zituen.

Kontseilariek, lehenik eta behin, elkarri entzuten, norberak nahi zuena adierazten eta erabakiak elkarrekin hartzen ikasteko prestakuntza behar zutela erabaki zen. Adostasun batzorde bat aktibatu zen, interesa zuten guztiek izena eman zuten eta Valentziako soziologia fakultatearen prestakuntza jaso zuten.

Emaitza interesgarria izan zen: ikasleak ardatz zituzten 10 lan ildo adostea lortu zuten, eta hortik aurrera, familiei, ikaskuntza ez formalei eta arautu gabeko prestakuntzari, ikastetxeei… begira jarri ziren. Lehen akordioen ondoren, etxe batean isolatu ziren eta bakoitzak bere ezagutzak edo esperientziak partekatu zitzan saiatu ziren, sortzen ziren ideiei buruz eztabaida zezaten. Bi egunez lan egin zuten, konpromiso batekin: guztiak asebetetzen ez zituzten proposamenak ez ziren aintzat hartuko. Eta 343 ekintza proposamenetarako adostasuna lortu zuten, bakoitza bestearen lekuan jarriz eztabaida biziak izan ondoren.

Eta bidean elkar onartu zuten, elkarri beste era batera begiratzen eta elkar beste ere batera ikusten hasi ziren, pertsonalki hurbildu ziren.

4.2. Jesús Garcésen erantzuna

Encarnak amaitu duen bezala hasiko naiz: harreman pertsonal hurbilak eduki behar dira; izan ere, kontseilariak gara, partaidetza erakunde batean gaude eta,

logikoki, harreman pertsonalak sortzen dira, bizitzan gertatzen den bezala, edozein motatako erakundetan parte hartzen duen edonoren kasuan bezala, eguneroko lanean aliantzak sortzen dira. Hau, gainera, dagoeneko ibilbide bat, analisi bat, lantalde batzuk eta metodologia bat markatuta dituen lan bizi bat da. Aragoiren kasuan, kanpoko aholkularitza ere garrantzitsua izan zen; izan ere, batzuetan tematu eta blokeatu egiten gara, eta ona da gure eremutik kanpoko norbaitek blokeoa arintzea eta une jakin batean errealitatea zehaztea. Halaber, taldeek ez dute oso handiak izan behar, baina sektore guztiak bildu behar dituzte. Aragoin, 8 eta 10 pertsona arteko lau talde osatu ziren. Azkenean, itun soziala aurrera atera zen eta itun politiko bat dago, 2019ko martxoan, hauteskunde autonomikoak baino bi hilabete lehenago, Aragoiko Gorteek Aragoiko hezkuntzaren aldeko itun baterako oinarriak ezarri zituztelako aho batez. Garai hartan Aragoiko Gorteetan zeuden zazpi talde parlamentarioek ekitateari, kalitateari, partaidetzari, irakasleei, haur hezkuntzari, lanbide heziketari, landa inguruneari eta finantzaketari buruzko zenbait puntutan akordioa lortu zuten. Batzuek orokorrak direla uste dute, baina niri oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit.

Akordioak zentzua du eta emaitzak ematen ditu; beste kontu bat da akordioak lortzen diren unea bat ez etortzea errealitate politikoarekin edo garai politikoarekin, baina une horietan ez da etsi behar.

Gorteek, Aragoiko Eskola Kontseiluak aurkeztutako dokumentua jasotzeaz gain, aditu, zuzendari eta ikuskatzaile askori entzun zieten.

2019ko martxoko idazketa (baina lana 2015eko urrian hasi zen): "Irizpen hau aurkezten dugu, etorkizuneko legebiltzarreko akordioetarako gida gisa balio dezan eta Gobernuak, erabakiak hartzeko orduan, babes adostua izan dezan, oinarrizko gaietan hezkuntza blindatzeko zailtasun batzuen aurrean eta nolabaiteko egonkortasuna emateko, Aragoiko Parlamentuaren eta Gobernuaren osaera edonolakoa izanik ere".

4.3. Manuel Martín Iglesiasen erantzuna

Elkarrizketarako espazio bat behar da (NEK). Eztabaida ordenatua lortu, funtsezko puntuen bidez: Plangintza, kalitatea, ekitatea eta partaidetza.

Bildutako hezkuntzako eragileek hezkuntza helburuak eta lehentasunak definitzen, bilatzen dituzte, agertoki egokietan.

Hezkuntzaren aldeko itun sozial hori lortzea denon lana da eta inoiz ez pertsona jakin baten meritua. Horixe da arrakastaren gakoa. Eta pedagogia horrekin joan behar du gero Legebiltzarrera; ez da gobernu baten ituna izanen, hurrengo belaunaldientzako akordioa baizik.

Badakit –denok dakigu, nik uste– ez dela posible itundu daitekeen guztia ituntzea. Agian ez da beharrezkoa ere. Baina premiazkoa da, hori bai, etorkizu-

nerako garrantzi handiena duten eta herritarrei kezka handiena sortzen dieten gaiei buruzko itunak egitea, baita gobernu aldaketetatik eta, oro har, elektoralismotik babestuta dagoen esparru egonkor baten barruan aurrerapausoak eman ahal izateko joko arau batzuk ezartzea ere.

Hezkuntza sistemako inertzien eta zurruntasunen gurpil zoro horrek, bereziki, gizarte egoera ahulenean dauden ikasleak zigortzen ditu, gainera. Baina talde politikoek hori gainditzeko aukera daukate. Ustezko hauteskunde kostuetatik haratago ikusteko eta onura sozial eta ekonomiko potentzial izugarriak ulertzeko apustua eginez gero, egoera hau desblokeatzea lortzen ahalko litzateke.

Mesa redonda 3

El papel del Consejo Escolar de Navarra en la construcción del Pacto Educativo

Moderador: Koldo Sebastián del Cerro

Participan: Javier Azanza Fuentes (alumnado), Oihane Jordana Mosén (profesorado pública), Jorge Lanchas Rivero (direcciones concertada), Pilar López Valderrama (profesorado concertada), Iosu Mena Sarasola (direcciones pública), María Teresa Módol Betriu (familias concertada), María Rodríguez Moran (familias pública).

Vamos a comenzar la tercera y última mesa de esta jornada, que centraremos en torno a *"El papel del Consejo Escolar de Navarra en la construcción del Pacto educativo*".

Nos van a ofrecer sus puntos de vista…

- **Iosu Mena y Jorge Lanchas**, representantes de las asociaciones de directores en la red pública y concertada, respectivamente.
- **Mª Teresa Mòdol** en representación de las familias de la enseñanza concertada y **María Rodríguez**, en representación de las familias de la enseñanza pública.
- **Oihane Jordana y Pilar López**, representantes del profesorado de la red pública y la red concertada.

Todos y todas pertenecientes a la Comisión Permanente del Consejo Escolar de Navarra…

- Y también **Javier Azanza**, representante del alumnado en el Consejo Escolar de Navarra.

El Consejo Escolar de Navarra, regulado por Ley Foral desde 1997, modificada en 2012 en su artículo 4 (referido a su composición), es el órgano superior de consulta y participación de los sectores sociales afectados en la programación general de la enseñanza no universitaria dentro del ámbito de la Comunidad Foral.

Su Pleno se compone de 36 miembros que se nutren de:

	Número de representantes	Públicos	Privados	Porcentaje
Administración Educativa	7			19,4
Secretario del Consejo Escolar de Navarra	1			2,8
Direcciones de centros educativos	2	1	1	5,6
Personal	7	5	2	19,4
Padres y madres	5	4	1	13,9
Alumnado	2	1	1	5,6
Universidades	2	1	1	5,6
Otras organizaciones	10			27,8
Total	36			100

Sus funciones y competencias, recogidas en el artículo 7 de la Ley Foral 12/1997 de 4 de noviembre, hacen referencia a tres aspectos:

1. La consulta preceptiva sobre asuntos como: normativa educativa, planificación de centros, criterios de financiación, modelos lingüísticos, becas y ayudas, actividades extraescolares y complementarias, convenios y acuerdos, así como con cuantas disposiciones y actuaciones estén encaminadas a la mejora de la calidad de la enseñanza y a compensar desigualdades.
2. Por propia iniciativa, puede, además, elevar al Departamento de Educación propuestas e informes sobre los siguientes asuntos: evaluación del sistema educativo, régimen de centros docentes, cumplimiento de las normas, formación del profesorado, política de recursos humanos y cualquier otro relacionado con la programación general de la enseñanza.
3. Igualmente, el Consejero de Educación puede someter a la consideración del Consejo Escolar otros asuntos relacionados con la programación general de la enseñanza no universitaria en la Comunidad Foral de Navarra.

Es indudable, por tanto, el papel aglutinante y transversal que tiene este organismo en nuestro sistema educativo y, en relación con el tema que nos ocupa en esta jornada, la posición privilegiada que le corresponde ocupar para vertebrar un proceso que nos lleve a una realidad más y mejor cohesionada en materia educativa.

El reciente informe PISA, en lo relativo a Navarra, y también el ISEN y el Informe ejecutivo, aprobados ambos por el CEN el pasado 15 de diciembre, permiten hablar de unos niveles de calidad del sistema educativo de nuestra comunidad que superan la suficiencia. Sitúan su robustez en el segmento alto de la tabla del conjunto del estado. No obstante, su capacidad para medirse y evaluarse, permite también determinar un margen de mejora en diferentes aspectos.

Bloque 1

¿Qué interpretación hacéis de los datos que aportan estos estudios e informes?
¿Qué conclusiones creéis que hay que sacar de sus balances en relación con Navarra?

1.1. Respuesta de Iosu Mena

Buenas tardes Koldo, señor consejero, presidente del Consejo Escolar del Estado, del de Navarra y del de Aragón, y colegas y amigos. Me gustaría decir lo primero que los estudios diagnósticos tipo PISA y demás no miden todo y hay cosas que son muy importantes que no las miden estos estudios. Pero tan insensato sería suponer que estos estudios lo miden todo como ignorarlos pensando que hay muchas cosas que no miden entonces lo que miden lo miden bien por lo que hay que hacerles caso. En general, los resultados de Navarra,

comparándolos con otras comunidades no son malos, o incluso comparándolos con otros países de la OCDE, pero sí son mejorables y lo que sí está claro es que últimamente han empeorado en general. No sabemos si han empeorado gracias a la crisis o a los recortes o incluso a la LOMCE. En general diremos que los resultados van empeorando desde 2015 a 2018. Podemos hablar de problemas como la segregación del alumnado con dificultades o desfavorecido, la repetición o la tasa de idoneidad que sí que están mejorando en estos últimos años. Lo que me gustaría destacar sobre todo es el porcentaje tan bajo que como ha dicho antes Manuel invierte Navarra en educación. El gasto de Navarra en educación anda rondando el 3% cuando hay quien dice que para llegar a unos resultados buenos hay que pensar en el 6 o 7 %.

Proba horiek eragin handia dute bai curriculumean bai metodologian, eta, ondorioz, ebaluazioa bihurtzen da irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren alderdirik garrantzitsuena. Horrek esan nahi du curriculumaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna izanen duela ELGAk, eta PISAk ezarriko duela zer gaitasun eta ezagutza diren ezinbestekoak. Alabaina, hori ez dator bat LOMLOEk Nafarroari curriculumaren zati handi bat zehazteko esleitzen dion eskumenarekin.

Hori esanda, emaitzak aztertuko ditut orain:

- Proba horiek ez dituzte ikasleak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren erdigunean jartzen.
- Gero eta bereizketa handiagoa izan, orduan eta emaitza okerragoak lortzen dira.

- Itunpeko ikastetxeen emaitzak ez daude hizkuntza-ereduaren arabera banatuta, eta interesgarria litzateke ondorioak ateratzeko.
- Emaitzek behera egin dute gaitasun guztietan.

Nafarroak diru gutxi bideratzen du hezkuntzara. Programa akordioan, Gobernuak konpromisoa hartu zuen BPGren % 5 bideratzeko, baina ez da zifra horietara iritsi, eta ez da gutxi falta ere. UNESCOk BPGren % 6 bideratzeko eskatzen du, eta Europako zenbait herrialdek are gehiago bideratzen dute hezkuntzara; Finlandiak, adibidez (hezkuntzaren arloan herrialde erreferente da), BPGren % 11,75 bideratu zuen 2020an.

1.7. Pilar Lópezen erantzuna

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi ditut Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardunaldi honetan parte hartzeko gonbidatzeagatik eta SEPNA-FSIE Nafarroako Irakaskuntza Pribatuaren Sindikatuak egin nahi dituen ekarpenak azaltzeko aukera emateagatik. Halaber, zorionak eman nahi dizkiot Kontseiluari, gizarte eragile guztiekin itun bat prestatzen hasteko ekimen honengatik, gure borondatea eta ekarpenak baliatuta, sektorearentzat onuragarriak diren akordioak lortzeko. Izan ere, herrialde bat eta gizarte bat herritarrek jasotzen duten hezkuntzaren eta prestakuntzaren araberakoa izanen dira. Hezkuntzaren aldeko itun soziala ez da ezinbestekoa sistema batek funtziona dezan, baina guztiz beharrezkoa da egonkortasuna eta kalitatea emateko eta, hala, eraginkorra eta efikaza izan dadin eta hobeki funtziona dezan. Hezkuntza gizartearen egungo eta etorkizuneko kalitatearen adierazlea da.

Eskola Kontseiluak aurkeztutako txostenaren arabera, esan dezakegu Nafarroako hezkuntza sistema graduazio-maila altuen artean dagoela gainerako erkidegoei dagokienez, lanbide heziketa izan ezik, Espainiako batezbestekoaren azpitik dago eta. Datuek argi eta garbi erakusten dute administrazioak lanbide heziketaren alde egin duela azken urteotan. Ezin dugu ahaztu, baina, kalitatea ezin dela lortu funts publikoek sostengatzen dituzten zentroen sisteman legea eta neurriak berdintasun irizpideen arabera aplikatzen direla bermatzeko finantzaketa egokirik gabe. Ikasle guztientzat izan beharko lirateke giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, aukeratu duten ikastetxe mota alde batera utzita. Horrela, aukera eta arreta berberak izanen lituzkete ikaskuntzan. Laburbilduz, finantza eta legegintza egonkortasuna eman beharko litzaioke Nafarroako hezkuntza sistemari, boterean dauden indar politikoen aldaketen mende egon gabe.

2. multzoa

Hezkuntza eragile zareten aldetik, zein da, zuen ustez, NEKn adostasun zabalena lortu duten alderdi garrantzitsuenak? Eta, zer eragin izan dute adostasun horiek Nafarroako hezkuntza sistemaren hobekuntzan?
Eta, zer arlotan egin beharko litzateke ahalegin handiagoa urrun geratu diren proposamenak hurbiltzeko?

2.1. María Teresa Mòdolen erantzuna

Gure ustez, Nafarroako Eskola Kontseiluan adostasun zabalena lortu duten alderdi garrantzitsuenak pandemia egoerarekin lotutakoak izan dira.

Pandemia egoerak agerian utzi ditu hezkuntza sistemaren "akatsak", baina baita hezkuntza sistemak eta hezkuntza eragileek egoera horri aurre egiteko duten gaitasuna ere.

Egoera horretan, Nafarroako Eskola Kontseiluan, gurasoen federazioen, ikastetxeetako zuzendarien, sindikatuen eta eskola kontseilua osatzen dugun gainerako eragileon arteko adostasuna lortu dugu, presentzialtasunari dagokionez, uste baitugu ezinbestekoa dela kalitatezko hezkuntza izateko.

Ikusi dugu, hezkuntzan, presentzialtasuna beharrezkoa dela, eta horren alde egiten jarraitu dugu.

Gure ustez, hori izan da gure eskola kontseiluan adostutako lorpenik handienetako bat.

Alderdi zailagoen edo marra gorriak markatuko dituztenen inguruan galdetuta, hautatzeko askatasuna izanen litzateke.

Espainiako Konstituzioak barne hartzen du hautatzeko askatasuna; beraz, uste dugu gai nahiko korapilatsua izanen dela.

Ez da marra gorri bat, berez, baina garrantzia du, hautatzeko askatasunaren eskubidea existitzen delako.

Arazoa ez dago ez sare publikoan ez itunpekoan, baizik eta hezkuntzan, oro har.

Kalitatezko hezkuntza, ekitatezkoa eta berdinzalea gure seme-alabentzat.

Gizarteak hobera egin dezan, uste dugu hautatzeko askatasuna izan behar dugula, eta prestakuntza erlijiosoa eta morala jasotzeko eskubidea bermatu behar dela, familiaren usteen arabera.

Gogoan izan behar baitugu familia dela seme-alaben hezkuntzaren erantzule nagusia.

Beraz, ikastetxea hautatzeko askatasuna ez ezik, hezkuntza erlijiosoa jasotzeko –familiek hala nahi badute– askatasuna eta bermea ere egonen lirateke gai garrantzitsuenen artean.

2.2. María Rodríguezen erantzuna

COVID-19ak gure hezkuntza sistemaren azken bi urteak markatu ditu, eta inoiz bizi ez dugun egoera bat ekarri zuen: 2019-2020 ikasturtearen azken hiruhilekoan ikastetxe guztiak itxi ziren. Hala ere, pandemiaren alde positiboa, zalantzarik gabe, eragile desberdinen artean puntu komunak aurkitzea izan da; izan ere, iraganean, seguru asko, ez ziren horretarako gai izanen. Eta, inolako zalantzarik gabe, gure sistemaren indargune nagusietako bat zera izan zen, hezkuntza etapa guztietan eta Nafarroako ikasle guztientzat presentzialtasunaren aldeko apustu irmoa egitea. Baliteke helburu hori erraza iruditzea, baina, 2020ko udan, aurretik bizitako egoera ikusita, horrelako apustu bat egitea erokeria zen batzuentzat. Hala ere, denborak agerian utzi du gure hezkuntza komunitateak duen indarra. Berretsi du hezkuntza sistema osatzen duten pertsona guztien (administrariak, irakasleak, zuzendariak, irakasle ez diren langileak, familiak eta ikasleak) lanari eta ahaleginari esker, normaltasuna eman ahal izan diegula gure ikasleei; hau da, ikastetxera itzultzea, COVID neurriak hartuta, betiere.

Gure hezkuntza sisteman pandemia gainditu edo, hobeki esanda, normalizatu ondotik, gai garrantzitsuei eta beharrezkoei ekiteko unea da. Eta horixe da gaurkoan hona ekarri gaituen arrazoia: abiapuntua jartzea egin behar den eta, beharbada, dirudiena baino zailagoa den lan bati. Uste dugu datozen hilabeteetan gai asko landu ditzakegula; besteak beste, eskola arrakasta, hezkuntzaren ghettizazioa, hezkuntzaren doakotasuna, eskola-jantokiak, parte hartzea, curriculuma eta USE. Dena den, badira tirabira gehiago sor ditzaketen beste gai batzuk ere, eta, horien gaineko adostasuna lortzeko, buru-belarri lan egin beharko genuke eragile guztiok; besteak beste, erlijioa, ikastetxea hautatzeko askatasuna, itunpeko ikastetxearen mugaketa, Iruñeko zonakatzea, eleaniztasuna, eskola egutegia, ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasleen ebaluazioa.

2.3. Pilar Lópezen erantzuna

Eskola kontseilua partaidetza organoa da, osaera zabalekoa eta anitzekoa, eta argi utzi nahi dugu SEPNA-FSIEk hari buruz duen iritzia positiboa dela; izan ere, egiten dituen txostenetan, ahalik eta adostasunik handiena lortzeko lan egiten du, ahaztu gabe gehiengo zabala administrazioak izendatutako pertsonei dagokiela.

Hona hemen aldatzeko kontuan hartu beharreko kontu bat: eskola kontseiluaren ordezkari titularraren ordezko bat izendatzea, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izanen duena, beharrezkoa denean titularra ordezka dezan eta ordezkatzen duen alderdiaren botoa islatuta gera dadin.

SEPNA-FSIErentzat, Espainiako Konstituzioan oinarritu behar da ituna, eta, zehazki, haren 27. artikuluan, hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntza

askatasuna babesten baititu. Adostasun-maila handiko itun bat edo akordio bat lortzen ez bada, Nafarroako hezkuntza sistema alderdi politikoen politikaren eta interesen mende egonen da urte askotan; hori dela eta, elkarrizketa eta negoziazio politiken alde egiten dugu, betiere helburu badute gehitzea eta ez kentzea, hobetzea eta ez aurrez aurre jartzea.

Nafarroako hezkuntzaren zerbitzu publikoa ikastetxe publikoen eta itunpekoen bitartez egituratu behar da, eskaintza pribatua legez egoteko aukerari kalte egin gabe. Funts publikoek sostengatzen duten hezkuntza sistemak Nafarroako eskola eta gizarte aniztasunari erantzun behar dio, eta, horregatik, ez da inor modu desberdinean edo subsidiarioan tratatu edo baztertu behar. Horri dagokionez, oraindik asko dago egiteko eta adosteko, nola itunpeko ikastetxeko ikaspostuaren benetako kostura bideratutako finantzaketa hobetzeko hala langileak kontuan hartzeko, duin egiteko eta hobetzeko.

2.4. Oihane Jordanaren erantzuna

Azken urteetako akordiorik garrantzitsuena eskola kontseiluak pandemiaren ondotik adostutako dokumentua izan da. Dokumentu hartan, hezkuntza prozesuaren erdigunean jartzen ziren ikasleak; haien alderdi emozionala lantzen zen; kontuan hartzen zen aniztasuna, bai eta nondik gentozen ere; baliabideak areagotu behar zirela aipatzen zen... Dokumentu oso interesgarria iruditzen zaigu, eta adostasun zabala lortu zuen.

COVIDarekin bizitako egoerak aukera ona izan behar zuen hezkuntzak duen egiturazko arazoa aldatzeko, uste baitugu hezkuntza sistema zaharkitua dagoela. Eta galdu egin da ikasleak erdigunean jartzeko eta sistema goitik behera eraldatzeko aukera.

Baina eskola kontseilua kontsulta organoa da, ez erabakitzailea. Eta uste dugu Hezkuntza Departamentuak ez zuela ezer egin dokumentu horrekin; hortaz, eskola kontseiluaren ahalmena galtzen da. Adostasun zabalak har daitezke, baina baliteke kaxoi batean gordeta geratzea.

Ahalegin handiagoa egin liteke, halaber, hainbat eremutan.

- Euskara: gatazka iturri da. Lege esparruak ez du aukerarik ematen Nafarroan ikasle euskaldun eleaniztunak sortzeko. Nafarroa osoan ez dago bermatuta euskaraz ikasteko eskubidea. Agerikoa da ikasle elebidunek gaitasun handiagoa dutela hizkuntzak ikasteko (ingelesa, frantsesa, etab.). Beraz, gaur egun, helburua da pertsonen garapen integrala, intelektuala eta afektiboa lortzea, baina mundu globalizatu bati kolorea emanda, azken batean unibertsala izan dadin, nortasun propioa duela. Bertako hizkuntzetatik abiatuta, mundura zabaltzea. Horretarako lehen urratsa –alegia, trantsizioa– hau da: Nafarroako ikasle guztiei bermatzea bertako bi hizkuntzekin gutxieneko kontaktua izatea. Haur guztiei, gutxienez, A eredua eskaintzea

eta G eredua kentzea. Horrek bidea irekiko digu gero euskarazko murgiltze eredua bakarra izan dadin.

- Laikotasuna: gizarte laikoa. Ez da eskolaren betebeharra, etxean transmititu behar den zerbait baizik.
- Bereizketak: sozioekonomikoa, sexuala/hezkidetza, erlijiosoa, dibertsitate funtzionala… Egiturazko neurriak hartu behar dira.
- Kontzertazio unibertsala: puntu horiek bideratzeko, kontzertazio unibertsala deuseztatu, eta eredu publiko-komunitariora egin beharko litzateke salto. Zerbitzu publikoa ematen duten eskolak guztiz finantzatzea, konpromisoen truke: eskola euskalduna, independentea, feminista eta bereizketarik gabea. Eta kuoten sistemak ezabatzea; baldintzak bete ezean, baina, ez dira finantzatuko. Egungo hitzarmen unibertsalari jarraituz, kuotak kobratu behar dira, eta horrek desberdintasun handiak sortzen ditu eskola batzuen eta besteen artean.

2.5. Jorge Lanchasen erantzuna

Ongi legoke pribatizazioa edo sare pribatua eta itunpekoa ez nahastea. Ituna legezkoa da, eta uste dut itunpeko ikastetxeek presentzia ona dutela hezkuntzan eta ongi ordezkatuta daudela. Akordio ugari erdietsi ditugu kontseiluetan nahiz eskola kontseiluaren osoko bilkuretan, baina ez dira behin betikoak itun bati begira; hortaz, itunera iristeko bidean, gai horiek guztiak kontuan hartzea komeni da. Ikastetxea hautatzeko askatasuna, itunpeko ikastetxeekin parekatzea eta osagarritasuna, besteak beste, ez dira marra gorriak, beste eskaintza mota bat baizik; oro har onartua dago, eta pertsona gehienei ongi iruditzen zaie. Eskolatzearen inguruko gaia eskola kontseiluaren osoko bilkuretan onetsi dugu, baina oraindik asko dago eztabaidatzeko, eskolatzea gardena izan dadin eta familia eta ikasle mota oro kontuan har dadin. Lanbide heziketako ratioen gaiaz ere gehiago hausnartu behar da. Lanbide heziketaren lege gisa interesgarria iruditzen zaigu, baina zenbait kontu zehaztu behar dira. Hezkuntza premia bereziei eta behar sozioekonomikoei eman beharreko arretari dagokionez, esanen nuke egun dagoen departamentua ongi kudeatzen ari dela, hobeki egin bazezakeen ere. Irakasleen kontua, nire ustez, oso interesgarria da; zaila da azaltzea, baina uste dut beharrezkoa dela. Irakasleek eguneraketa bat behar dute, edo gaur egunera egokitutako prestakuntza bat, orduak liberatzea berekin dakarrena; izan ere, lan gainkargaren ondorioz, baliteke denborarik ez izatea beren eginkizunak behar bezala betetzeko, edo, beharbada, bere gain hartzen ari dira haiei ez dagozkien eta erraztasun handiagoak dituztenek egin ditzaketen zenbait eginkizun. Ratioak murrizten badira eta ingurune mota horiek hobetzen badira, baliteke irakasleei laguntzea, batzue-

tan gogorik gabe eta lanez gainezka egoten baitira, eta uste dut, hitzarmenari begira, hori kontuan hartu beharko litzatekeela.

Ikastetxeen autonomia, kudeaketa autonomia, hezkuntza autonomia, malgutasuna…Ikastetxeetako zuzendariak eta ikasketaburuak lanez gainezka egon ohi dira; izapideak dituzte egiteko, eta araudia dute esku artean. Horrez gain, lan zuzendaritzaz, irakasleez eta sindikatuez arduratu behar dira. Oro har, lan mordoa dute, eta horrek guztiak traba egiten die ikastetxeen autonomiari eta malgutasunari.

Jasangarritasunari dagokionez, argi dago irabazi-asmorik gabeko ikastetxe guztiek barne hartu beharko luketen ildo estrategiko bat izan beharko litzatekeela; gutxienez, jasangarria izateko gogoa izan beharko lukete, mantentzeko modukoa eta xedea betetzeko behar diren baliabideak eskaintzen dituena.

Eskola uztea eta absentismoa gai oso kezkagarriak dira, indize nahiko altua dugulako. DBH edo Batxilergoa autobia bat balitz, Lanbide Heziketa autobia ondoko bidetxotzat ez hartzen saiatu beharko genuke, eta "ikasteko balio ez duzunez, lanbide heziketara" eta antzekoak ez esan. Oro har, lan handia egiten da LHko ikasleekin, utzitako bidera itzul daitezen lortu nahi baita. Lanbide Heziketan, interesgarria da, baita ere, enplegurako prestakuntza. Oraintsu iritsi da Hezkuntza Departamentura, eta itunpeko ikastetxeetara ere iritsi beharko litzakete, prestakuntza mota hori eskaini ahal izateko. Halaber, kontuan izan behar da helduen prestakuntza. Kontuan izan behar da egungo ikasleei ematen diegun prestakuntza etorkizuneko helduek edukiko dutena izanen dela. Pertsona askok ez dute etengabeko prestakuntza ez enpresetan ez bizitzan, oro har, eta beharrezkoa da berritzea. Gai horiek kontuan hartu beharko lirateke, eta hitzarmenean sartu nolabait. Laneratzea ere sartu beharko litzateke, lanbide heziketaren helburuetako bat da eta. Hori guztia gardentasunez eta ekitatez egin beharko litzateke, eta beti lana ongi eginda.

2.6. Iosu Menaren erantzuna

Gustatuko litzaidake azpimarratzea, baita ere, eskola kontseiluan izan dugun jarrera oso praktikoa izan dela. Lege bati buruzko irizpen bat edota hobekuntza proposamenak egiteko, adostasunera iritsi izan gara beti. Ez dut gogoratzen haustura larririk eragin duen eta ados jartzea eragotzi duen gai bat ere. Ados nago nire lankideek esan dutenarekin; gai batzuek arazoak ekar ditzakete. Ni ikastetxe bateko zuzendaria naiz, eta Jorge, beste batekoa; eta ez dut uste Jorge eta ni inoiz bat etorriko garenik erlijioaren gaineko ikuspegiari edo ikastetxea hautatzeko askatasunari dagokionez. Bilatzen dugun gizarteari buruz ditugun ikuspegi ideologikoak ez dira inoiz berdinak izanen. Bakoitzak bere gizarte eredua du, eta handik dator hezkuntza eredua. Kontuan izan behar da eredu horiek ezin direla berdinak izan, baina horrek ez du esan nahi bat etorri ezin

garenik. Guztiok pozik egonen ez bagara ere, gai horiei guztiei buruz eztabaidatu eta hitzarmena lortu dezakegu. Aipatu diren eremu guztietan, hainbat motatako iritziak daude, eskola kontseiluan oso ongi ordezkatua baitago Nafarroako gizartea. Nahiago dut optimista izan eta hitzarmena lortuko dugula pentsatu.

3. multzoa

NEK 2019ko azaroaren 27an abiatu zen egungo eraketarekin, eta, ordutik, 35 akordio lortu dira osoko bilkuran. Horietatik 32k (% 91ek) ez dute kontrako boto bat ere izan. Baina are azpimarragarriagoa da lortutako 35 akordioetatik 28 (% 80) aho batez onetsi direla.

Beraz, ez da ahalegin handia egin behar ondorioztatzeko NEKn adostasunera iristeko ohitura handia dagoela.

Hezkuntza eragile guztiak ordezkatuta dauden organo pluralean eta askotarikoan lortutako konbergentzia-maila dela eta, aurreikus liteke antzeko zerbait gertatzen dela beste eremu batzuetan lortzen den akordio-gaitasunean. Baina ez da hala.

Zergatik uste duzue ez datozela bat hezkuntza eragileok lortzen duzuen adostasunaren eta alderdi politikoek parlamentuan lortzen duten adostasunaren artean?

Zuen ustez, NEKren funtzionamenduaren zer ezaugarri eraman litezke eremu politikora, gure erkidegoan hezkuntzaren aldeko itun sozial batera iritsi ahal izateko?

3.1. Javier Azanzaren erantzuna

Uste dut desberdintasun handiak daudela eskola kontseiluaren eta parlamentuaren artean; azken batean, NEKn, lan egiteko dugun materiala hezkuntza da, eta, gainera, zuzenean eragiten digu. Horregatik interesatzen zaigu, hain zuzen, zenbait gai aurrera eramatea, gehienetan gure onerako baitira. Dirudienez, parlamentuan ez da hori gertatzen, eta horregatik daude desberdintasunak akordio mailari dagokionez.

3.2. Oihane Jordanaren erantzuna

Uste dugu hezkuntza agenteen artean ez dagoela akordio handirik; hala ere, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasun handia dago, esparru politikoan baino gehiago behintzat.

Hezkuntza Departamentuak erakutsi du ez duela akordioetara iristeko ez gogo ez nahi handirik. Askotan, inoren laguntzarik gabe egiten ditu gauzak,

ikasleak hezkuntza-prozesuaren erdigunean jarri gabe eta hezkuntza komunitatearekin adostu gabe.

Hala ere, gai batzuek gatazkak sortzen dituzte agenteen artean, eta ez dago jarrera konstruktiborik. Guk sistema integratzaile bat proposatzen dugu, eta gure sistemara ekartzen ditugu ikasle guztiak; beste batzuek, aldiz, baztertu egiten dituzte.

Erabakiak soilik aholku-emaileak izateak, askotan, akordioak sinpleagoak izatea ahalbidetzen du, baina, erabakiaren sakontasunaren arabera, eskola kontseilua osatzen duten eragileen artean ere distantzia handiak ikusten dira.

Gure ustez, hamarkada luzez pribilegiatuak izan diren sektore batzuek ez dute inolako asmorik hezkuntza sistema demokratikoagoa, unibertsalagoa eta zuzenagoa eraikitzeko, horrek, neurri handi batean, orain arte izan dituzten pribilegioei uko egitea ekarriko bailuke.

Horren ondorioz egoera surrealistak sortzen dira XXI. mendean, hala nola oraindik ere ikasleak generoaren arabera banatzen dituzten eskolak egotea eta, nolanahi ere, diru publikoa jasotzea.

Hori horrela, egia da eskola kontseiluan, eremu politikoan ez bezala, blokeen arteko lehia ez dela hain agerikoa, eta horrek ekosistema egokia sortzen duela gai jakin batzuetan zeharkako adostasunak eraikitzeko.

3.3. Pilar Lópezen erantzuna

Eztabaidaezina da urteetan zehar hezkuntzaren arloko hainbat akordio lortu direla NEKn, eta horietako batzuk esparru politikoan babestu direla.

Jarrerak hurbiltzea eta elkarrizketa tresna garrantzitsuak dira, guztiontzako kalitatezko hezkuntza izateko helburuak bateratu eta adostu ahal izateko. Horretarako, aldez aurretik, elkar ulertu beharra dago, eta guztiontzako esparru komun baten barruan hezkuntza sistemaren egonkortasuna eta koherentzia bermatuko duten politika komunak ezartzeko beharra onartu.

Hezkuntza askatasunean oinarritutako itun sozial eta politikoa izatea lortzen ez badugu, eta hezkuntzaren benetako arazoei aukera guztiak ulertzetik eta errespetatzetik abiatuta heltzen ez badie, duela urte batzuetatik gauden tokian jarraituko dugu, etengabe eztabaidatzen, eta hezkuntza sistemak ez du hobetuko; are gehiago, okerrera eginen du. Beharrezkoa den erantzukizun zentzu hori gabe, ikasleek eredu aldakorrei aurre egiten jarraituko dute, eta profesionalok, irakasleok eta irakasle ez diren langileok nahasketan, ziurgabetasunean, desengainuan eta etsipenean murgilduta jarraituko dugu. Politikariek ezin dute beren burua engainatu, eta ez dute halakorik egin behar; benetan gizartearen eta hezkuntzaren zerbitzura egon nahi badute, alde batera utzi behar dituzte beren jarrera *alderdikoiak, eta guztien zerbitzura egon, gutxieneko baldintza batzuk partekatuta*.

3.4. Iosu Menaren erantzuna

Bat nator Oihanek dioenarekin: Nafarroako Eskola Kontseilua organo aholku-emailea denez, agian ez du merezi organo betearazlea edo legegilea balitz bezain beste eztabaidatzea. Horrez gain, nik uste dut harreman pertsonalak oso garrantzitsuak direla. Kontseilarien arteko harremanak, oro har, onak dira, eta horrek gauzak errazten ditu. Nik hezkuntzako profesional baten ikuspegitik aztertzen ditut gaiak; hortaz, lehenik eta behin pentsatzen dut ea honek nola hobetu edo okertu dezakeen ikasgeletako eguneroko lana, eta ea lor dezakegun ikasleak horrela motibatzea eta ikastea. Ez dut planteamendu ideologizaturik egiten, eta hori jarrera praktikoagoa da, adostasunera edo itunera iristeko irekiago bainago. Fokuetatik kanpo lan egiten dugu; komunikabideak osoko bilkuretara joanen balira eta hori ikastetxeetako elkarteen egoitzetara edo inplikatutako sindikatuen egoitzetara eramanen balitz, giroa desberdina izanen litzateke, zoritxarrez. Nire ustez, planteamendu ideologikoak positiboak dira, baina horrek ez du esan nahi ezer lortuko ez dugunik. Agian arazoa da ez dagoela itunak egiteko kulturarik, itunak sinatu egiten badira ere. Ez dut arazorik ikusten hitzarmenarekin aurrera jarraitzeko.

3.5. Jorge Lanchasen erantzuna

Nafarroako Eskola Kontseilua organo aholku-emailea da, jakina. Gutxi gorabehera badakigu zer boto egonen diren gai bakoitzean, baina, proiektu edo txosten osoa bozkatzean, ongi legoke aldeko botoak lortzea eta aurrera jarraitzea. Baina baliteke ordezkariren batek bere jarrera indarrez defendatzea, arrakastarik ez izatea eta, azkenean, boto gutxiago lortzea. Nik uste dut interesgarria izanen litzatekeela adostasun batetik hurrengo adostasunera joatea; partidaz partida, esaten den bezala. Baina hori, itun mailan jarrita, baliteke indar handiagoa izatea eta horren aurka edo alde egitea. Nik uste dut alderdi politikoek ere hala egiten dutela. Guztion ongia nahi dugu, alegia, hezkuntza pertsona guztiengana iristea, hezkuntzaren hainbat alderdirekin izan ohi ditugun arazoak alde batera utzita.

Nik, adibidez, esperientzia jakin bat izan nuen politikari ezkertiar batekin: gure ikastetxean zer egiten genuen aurkeztu nion, eta aho zabalik geratu zen. Baina, gero, parlamentura iritsi, eta kontrako botoa eman edo itunpeko ikastetxearen aurkako adierazpenak egin zituen. Nik uste dut hor dagoela arazoa; uste dut informazioa, presentzia edo gardentasuna falta dela. Kasu batzuetan, boto bakar bati esker lortzen da adostasuna, baita presidentearen kalitatezko botoari esker, eta, hain zuzen, horrela lortu ahal izan zen adostasuna. Nafarroako Eskola Kontseiluan, organo aholku-emailea bada ere, gizarte osoa dago ordezkatuta, eta, batzuetan, baita hezkuntzarekin zuzenean lotuta ez dauden beste pertsona batzuk ere. Baina, nire ustez, garrantzitsua da aintzat hartzea

non garatzen den hezkuntza, eta horrek hezkuntzari ere mesede egiten dionez, gero eta gehiago hartu behar da kontuan.

3.6. María Rodríguezen erantzuna

Nire esperientziatik hitz eginda, gurasoen federazioak agerian utzi dugu, azken urteotan, posible dela elkarrekin lan egitea, eta, batez ere, elkarrekin indartsuagoak garela eta babes handiagoa dugula. Posible da elkarrekin lan egitea, betiere norberaren egoa alde batera uzten badugu eta puntu komunak bilatzen baditugu, lantalde guztietan baitaude. Hala ere, lana osoa eta benetan eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da, baita ere, itxuraz bat ez gatozen gaietan ados jartzea eginen duen ideia bat aurkitzeko lan egitea. Beraz, guk hori lortu badugu, kontuan hartuta gure seme-alaben hezkuntzari eskaintzen diogun denbora gehiena eskuzabaltasunez eskaintzen dugula, ziur gaude gure parlamentua ere horretarako gai izanen dela.

Lehen esan dugun bezala, elkarrekin egindako lanean izan dugun esperientzia oso positiboa izan da. Gu adostasunetara iristeko gai izan gara, eta, bat ez gentozen gaietan, ados jartzen lagundu diguten ideiak landu ditugu. Gehiengoaren arabera osatzen diren kide anitzeko organoen funtzionamendu sistemak, beharbada, ez dira kide asko pozik uzten dituzten akordioak lortzeko adibiderik onena. Hala ere, denok eremu batzuetan amore emateko gai bagara eta, batez ere, beti sektore berak amore ematen ez badu, agian, gure erkidegoan hezkuntzaren aldeko benetako itun soziala lortzeko formula aurkitu dugu.

3.7. María Teresa Mòdolen erantzuna

Bat nator Herrikoa elkarteko presidente Mariarekin.

Bizi dugun egoera kontuan hartuta, federazio guztiak bildu gara. Ez gara itunpeko federazioak eta federazio publikoak, baizik eta gure seme-alaben hezkuntzaz arduratu dauden gurasoak.

Hori da garrantzitsuena: zer batzen gaituen ikustea, babesa bilatzea eta bereizten gaituzten alderdiak lantzea. Ez dugu hasi behar puntu ez-konstruktibo batetik, alegia, aipatu ditugun marra gorrietatik. Indarrak batzen saiatu behar dugu, iparra gal ez dezagun eta itun honen benetako protagonista zein den ahantz ez dezagun: gure seme-alabak, ikasleak.

Izan ere, askotan aipatzen dugu hezkuntza edota hezkuntzarako eskubidea, baina, parlamentua dugunez beti erdigunean, ahaztu egiten dugu haurrak direla garrantzitsuenak.

Hori dela eta, zehaztu nahi dugu familiak garela hezkuntzaren arduradun nagusiak; hortaz, hezkuntza komunitateko gainerako kideekin batera parte hartu behar dugu, ituna osatzeko.

Parlamentuaren aldean, gu irtenbideak bilatzen saiatzen gara, ekarpenak egiten ditugu, eta ikusten dugu ea non eman dezakegun amore edo non koka gaitezkeen; gainera, gure helburua ez da lege bat bestearen atzetik indargabetzea.

Espainiako estatuan, gure hezkuntza egoerari laguntzen ez dioten hainbat lege izan ditugu. Zortzigarren hezkuntza legea da egungoa, eta ez da posible parlamentua gai ez izatea eskola kontseiluak eta gizarteak benetan eskatzen dutena emateko.

Parlamentua gizartearen ordezkaritza da; gizarteak adostasunak lortu baditu, parlamentuak ere lortu beharko lituzke.

Clausura

Carlos Gimeno
Consejero de Educación

Buenas tardes, Arratsalde on.

Muchas gracias a todos y a todas las personas que han participado en la vigésimo sexta jornada del Consejo Escolar de Navarra que se han dedicado a la posibilidad o al germen de crear en la Comunidad Foral un Pacto Social por la Educación.

Quiero agradecer en primer lugar a la presidenta del Gobierno de Navarra que ha estado inaugurando estas jornadas, lo cual da muestra del interés del Gobierno de Navarra por alcanzar un acuerdo en el ámbito de la educación, un acuerdo transversal, un acuerdo importante.

También quiero agradecer obviamente al presidente del Consejo Escolar de Navarra, Manuel, y a Koldo Sebastián por el trabajo y esfuerzo para culminar y cristalizar estas jornadas, así como a las personas que han venido de fuera y nos han acompañado. Ha sido un placer escuchar a Encarna, Jesús, Álvaro, Nacho y a Xavier Bonal.

Lo que la última mesa ha descrito resulta muy relevante, representativa del CEN, y por lo tanto, de nuestra comunidad educativa, vocales de cada uno de los sectores que representan el sistema educativo navarro.

Es importante considerar la diversidad y la pluralidad que hay en el Consejo Escolar de Navarra; se ha visto la muestra en cuanto a las expresiones, en cuanto a las manifestaciones, en cuanto a las opiniones y en cuanto a los posicionamientos de unas y otras, de unos y de otros. Creo que es un valor democrático de primer orden el hecho de que haya diversidad y pluralidad ya que forman parte del ordenamiento jurídico superior y por lo tanto creo que es fundamental que se haya podido desplegar en estas jornadas.

Creo que es importante también destacar circunstancias que son necesarias a la hora de establecer un pacto. Tengo que decir que no estoy muy de acuerdo con los datos que se han trasladado respecto a la financiación. El 10

de noviembre se firmó, por 40 países, un acuerdo fundamental para poner en valor los acuerdos de la Comisión de Educación de octubre del 2020 y de lo que se acordó en Corea del Sur con respecto al foro de la educación que era de alguna manera que el producto interior bruto de las Administraciones Públicas estuviese entre un 4 y un 6% del producto interior bruto y que el porcentaje total del presupuesto de una administración pública estuviese entre un 16 y un 20%. En el proyecto de presupuesto del Gobierno de Navarra para el Departamento de Educación, ya saben todos ustedes que ha tenido un trámite en la Comisión de Hacienda y obviamente habrá que ver exactamente cómo se cierra el presupuesto, el Gobierno de Navarra dedica hoy en este momento más de un 4,26% al producto interior bruto en educación. Éste es un dato cuantitativo y quiere decir que no solo es lo que se dedica a la educación no universitaria, sino también a 03 y al ámbito universitario.

En ese índice la Comunidad Foral de Navarra ya está cumpliendo con el acuerdo de la UNESCO del 10 de noviembre. Además, en el proyecto de presupuestos el montante total del presupuesto del Gobierno de Navarra es un 16,6% (está entre el 16 y el 20 %). Por lo tanto, en ámbito de financiación creo que el Gobierno de Navarra empuja y sitúa las posibilidades de un pacto desde este punto de vista.

Quiero destacar tres cuestiones fundamentales que he observado y analizado.

Creo que se ha solicitado que haya un cambio de mirada. Es importante tener en cuenta que la educación es el instrumento más importante para combatir la desigualdad. Se ha oído a primeras horas de la mañana de forma muy clara en la ponencia de Xabier Bonal y obviamente ésta es una cuestión que creo que es importante en darle una visión de que la educación no es una cuestión del Gobierno, es una cuestión de la ciudadanía, de la sociedad, tal como ha dicho la presidenta del Gobierno en su inauguración.

Para que una ley sea aceptada por todos y todas tiene que haber estabilidad financiera, política, social, tiene que haber participación y tiene que haber acuerdo; si no es así siempre serán leyes que tendrán una u otra contestación. No sólo es el momento de actuar si no que también es fundamental el legado. Tan importante es saber situar la educación, hacia dónde se dirige, qué pretendemos conseguir y a quién le queremos dejar el legado futuro.

Obviamente el presidente del Consejo Escolar de Navarra ha señalado, al igual que la presidenta del Consejo Escolar del Estado, que tiene que existir un procedimiento; y creo que para que éste tenga valor y éxito tiene que poner a la comunidad educativa en el centro, en el corazón del acuerdo, que se va a establecer y en ese sentido no encuentro mejor lugar que el Consejo Escolar de

Navarra, una buena plataforma para poder iniciar un acuerdo y obviamente, las dificultades, se van añadiendo a la vez que se va estableciendo análisis que sirve para iniciar con un diagnóstico común. Por ejemplo, hay varios y varias ponentes que han hablado de la importancia de la educación infantil para reducir las desigualdades, para la intervención temprana. Sin embargo, hemos visto cómo ha habido muchas dificultades para utilizar los fondos de la Comisión Europea de 03 por parte de las comunidades autónomas. Por lo tanto, a pesar de que tengamos acuerdos, las dificultades vienen en el cómo. En ese sentido es un trabajo importante, interesante e incesante el que hay que deshacer o enmendar. Siempre me gusta en cuestiones conflictivas o en circunstancias con visiones diferentes, con pluralidad, con diversidad, recordar una frase de Séneca, que dice que la realidad, la sabiduría reside en saber distinguir dónde podemos modificar la realidad y adecuarla a nuestros deseos y dónde de forma inteligente hay que dejarla invariable. Eso no significa que no nos podamos relacionar con los hechos de forma absolutamente diferente y para eso es importante tener un diagnóstico común y un procedimiento porque hay que conocer la realidad.

Como consejero del Gobierno de Navarra quiero reivindicar los disensos que construyen y quiero también trasladar la importancia del bien común. Estos disensos generan acuerdos, pero además creo que los consensos no tienen que ser idílicos, pero sí que deben existir.

La complejidad de la tarea que se encomienda a la comunidad educativa es ardua porque todos conocemos los intentos en estos 40 años de crear un pacto por la educación.

El presidente del Consejo Escolar de Aragón ha trasladado como se resolvió de forma satisfactoria todo un proceso. Y también pueden existir otros no decididos de la misma forma. Por ejemplo, a nivel del Estado, en abril de 2010 existía liderazgo, un ministro como Ángel Gabilondo que estableció 138 reuniones con sectores educativos, con ONGs, con agentes educativos, con consejos, con comunidades autónomas.

Ese pacto, que tenía 12 objetivos y 147 actuaciones, tal y como ha dicho el presidente del Consejo Escolar de Aragón, se redactó, pero no se firmó. Había un compromiso de introducir 1.570 millones por cada ejercicio presupuestario para los Presupuestos Generales del Estado en el ámbito de educación y obviamente eso no se llevó a cabo.

El ministro quiso recoger ese trabajo, no quiso renunciar a esa circunstancia y la puso en valor, aunque varios partidos políticos no firmaran el acuerdo y reivindicaran 22 iniciativas legislativas que se anunciaban en ese momento y esperaron a que se generarán. Finalmente, no se pudo culminar cuando se

estuvo a punto. Hubo mucho trabajo, mucho interés, liderazgo… También en marzo de 2018 hubo un intento frustrado, en este caso, porque otros actores políticos entendieron que no se habían puesto los 5.000 millones base ni se preveía que se estableciese los 1.500 millones anuales que iba a ir a los presupuestos ni nos acercábamos al 5% del PIB de financiación de la educación.

Yo reivindico el pacto por una cuestión; y es que estando en una época de cambios en el ámbito educativo, y además en una permuta de época educativa. Esa mirada tiene que modificar las actitudes para que generen valores y éstos, a su vez, conductas.

En esta mudanza de época educativa, el cambio es acelerado, profundo y de alguna manera con ciertas incertidumbres. Es contexto volátil, ambiguo, de pocas evidencias y por lo tanto, creo en la necesidad de todos los recursos, de reivindicar lo común, de la unidad, para fluir en la misma dirección, a pesar de las diferencias, sin poner en menoscabo el liderazgo competencial, liderazgo político, que también es absolutamente necesario y además viene derivado de lo que mandata la ciudadanía.

Hay que trasladar un mensaje optimista. La pandemia ha sido y es una auténtica calamidad, pero también ha trasladado una forma de actuar por parte de todas las comunidades autónomas. Hemos priorizado actuaciones y además de forma conjunta. Es un ejercicio de ver cómo se puede trabajar en el contexto. En el ámbito de la Conferencia Sectorial de Educación, en acuerdos que se han plasmado y que han podido ser cristalizados de los que han podido beneficiarse la ciudadanía.

El último, el día 4 de enero, a través de una confluencia extraordinaria entre la Conferencia Sectorial de Educación, la Conferencia Interterritorial de Salud y la Conferencia General de Política Universitaria dónde se ha descrito un acuerdo de país; en este acuerdo, la modalidad educativa presencial es una cuestión que se ha abrazado por parte de 73 mandatarios presentes, entre ministros, presidentes, consejeros de sanidad, de universidad y de educación. Navarra fue la única comunidad el año 2020 que estableció la modalidad educativa presencial en todos los niveles y en todas las etapas. Yo me congratulo de que el día 4 de enero todas las comunidades autónomas y todas las orientaciones políticas hayan abrazado la modalidad educativa presencial algo que no era fácil de establecer en agosto de 2020 y una cuestión que fue tremendamente compleja en esta comunidad.

Por lo tanto, es una circunstancia que, a pesar de lo que se trasladaba aquí de alguna manera con cierta ironía con respecto a los grupos políticos, todos los grupos políticos llevan en su programa electoral el hecho de la necesidad de generar o de llegar a un pacto.

Es una cuestión irrenunciable, pero una cuestión compleja donde no veo los mejores indicativos para llegar un pacto. Un día comentaba con el Director General de Educación, teniendo en cuenta que iba a participar en una mesa del 2050 en Salamanca sobre el pacto por la educación en la oficina prospectiva de Moncloa, la pregunta que nos planteaban inicialmente, sobre si es mejor llegar a un pacto o es mejor llegar a acuerdos parciales. Mi respuesta: si no llegamos a un pacto lleguemos a acuerdos parciales. Habría que reformular la pregunta en ese sentido, pero obviamente es un objetivo absolutamente irrenunciable y creo que como sociedad, como comunidad debemos abordarlo y además quiero quedarme con una frase que he oído esta mañana: es una oportunidad única y creo que tenemos que aprovecharla.

Bukaera ekitaldia

Carlos Gimeno
Hezkuntzako kontseilaria

Arratsalde on.

Eskerrik asko Nafarroako Eskola Kontseiluaren hogeita seigarren jardunaldian parte hartu duten guztiei, Foru Komunitatean Hezkuntzaren aldeko Itun Sozial baten sorrera aztertzeko zereginean aritu direlako.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot jardunaldi hauek inauguratzen aritu den Nafarroako Gobernuko lehendakariari, horrek agerian uzten baitu Nafarroako Gobernuak interesa duela hezkuntza-arloan akordio bat, zeharkako akordio bat, akordio garrantzitsu bat lortzeko.

Halaber, Nafarroako Eskola Kontseiluko buru Manueli eta Koldo Sebastiáni eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldi hauek gauzatzeko eta burutzeko egindako lan eta eginahalagatik, baita kanpotik etorri diren eta gurekin egon diren pertsonei ere. Atsegin handia izan da Encarna, Jesús, Álvaro, Nacho eta Xavier Bonal entzutea.

Azken mahaiak deskribatu duena oso garrantzitsua da, Nafarroako Eskola Kontseilua ordezkatzen baitu, eta, beraz, baita gure hezkuntza-komunitatea ere, bertan baitira Nafarroako hezkuntza-sistema ordezkatzen duten sektore bakoitzeko kontseilukideak.

Garrantzitsua da Nafarroako Eskola Kontseiluan dagoen aniztasuna eta pluraltasuna kontuan hartzea; hala ikusi da batzuen eta besteen adierazpenetan, hitzetan, eta iritzietan. Nire ustez, lehen mailako balio demokratikoa da egotea, goi-mailako ordenamendu juridikoaren parte baitira, eta, beraz, uste dut funtsezkoa dela jardunaldi hauetan aniztasuna eta pluraltasuna hedatu izana.

Uste dut garrantzitsua dela, halaber, itun bat ezartzerakoan beharrezkoak diren inguruabarrak nabarmentzea. Esan behar dut ez nagoela oso ados finantzaketari buruz helarazi diren datuekin. Azaroaren 10ean, 40 herrialdek funtsezko akordio bat sinatu zuten indartzeko Hezkuntza Batzordearen 2020ko urriko akordioan eta hezkuntza-foroari buruz Hego Korean adostu zena; hots,

barne-produktu gordinaren % 4tik % 6ra bitarte eta gastu publikoaren % 16tik % 20ra bitarte izan behar dela Hezkuntzarako. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenturako duen aurrekontu-proiektuak izapide bat izan du Ogasun Batzordean, ongi dakizuenez, Aurrekontua nola ixten den zehazki ikusi beharko da. Proiektuan Nafarroako Gobernuak barne-produktu gordinaren % 4,26 baino gehiago bideratzen du hezkuntzara. Datu kuantitatiboa da, eta horrek esan nahi du unibertsitatez kanpoko hezkuntzari ez ezik, 03 hezkuntzari eta unibertsitate-eremuari ere eskaintzen zaiola.

Indize horretan, Nafarroako Foru Komunitatea dagoeneko betetzen ari da UNESCOren azaroaren 10eko akordioa. Gainera, aurrekontu-proiektuan Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren guztizko zenbatekoa % 16,6 da (% 16tik % 20ra bitartekoa). Beraz, finantzaketaren arloan, uste dut Nafarroako Gobernuak itun baten aukerak bultzatzen eta kokatzen dituela ikuspegi horretatik.

Ikusi eta aztertu ditudan funtsezko hiru gai azpimarratu nahi ditut.

Uste dut begirada aldatzeko eskatu dela. Garrantzitsua da kontuan hartzea hezkuntza dela desberdinkeriari aurre egiteko tresnarik garrantzitsuena. Goizeko lehen orduetan oso argi entzun da Xabier Bonoren hitzaldian eta, jakina, uste dut gai hori garrantzitsua dela ikusteko hezkuntza ez dela soilik Gobernuaren kontua, baizik eta herritarren eta gizartearena, Gobernuko presidenteak inaugurazioan esan duen gisan.

Lege bat guztiek onar dezaten, egonkortasun finantzarioa, politikoa eta soziala behar da, partaidetza behar da eta adostasuna behar da; hala ez bada, beti izanen dira erantzun bat edo beste duten legeak. Jardutea ez ezik, zer ondoren uzten den ere funtsezkoa da. Garrantzitsua hezkuntza kokatzen jakitea, norantz zuzentzen den, zer lortu nahi dugun eta nori utzi nahi diogun etorkizuneko ondorena.

Jakina, Nafarroako Eskola Kontseiluko buruak adierazi du, Estatuko Eskola Kontseiluko buruak bezala, prozedura bat izan behar dela; eta uste dut, prozedura horrek balioa eta arrakasta izan dezan, hezkuntza-komunitatea erdigunean jarri behar duela, ezarriko den akordioaren bihotzean, eta zentzu horretan ez dut aurkitzen Nafarroako Eskola Kontseilua baino toki hoberik, hura baita akordio bat hasteko plataforma egokia. Agerikoa denez, zailtasunak azalduz joanen dira, behin diagnostiko bateratu bati hasiera emateko azterketa ezarriz joan ahala. Adibidez, zenbait hizlarik hitz egin dute haur-hezkuntzak desberdintasunak murrizteko eta esku-hartze goiztiarrerako duen garrantziaz. Hala ere, ikusi dugu zailtasun handiak izan direla autonomia-erkidegoek Europako Batzordearen funtsak erabiltzeko 0-3 urteko etaparako. Beraz, nahiz eta ados jarri, zailtasunak datoz nola gauzatu erabakitzerakoan. Alde horretatik,

lan garrantzitsua, interesgarria eta etengabea da desegin edo zuzendu behar dena. Beti gustatzen zait gai gatazkatsuetan edo ikuspegi desberdinak dituzten egoeretan, pluraltasuna eta aniztasuna tarteko dela, Sénecaren esaldi bat gogoratzea, zeinak esaten duen errealitatea, jakinduria dela bereizten jakitea non alda dezakegun errealitatea eta gure nahietara egokitu eta non utzi behar dugun, azkartasunez, aldatu gabe. Horrek ez du esan nahi ezin dugunik erlazionatu gertaerekin bestelako moduan. Horretarako, garrantzitsua da diagnostiko bateratua eta prozedura izatea, errealitatea ezagutu behar baita.

Nafarroako Gobernuko kontseilari gisa, eraikitzen duten desadostasunak aldarrikatu nahi ditut, eta guztion ongiaren garrantzia ere adierazi nahi dut. Desadostasun horiek akordioak sortzen dituzte, baina, gainera, uste dut adostasunek ez dutela idilikoak izan behar, baina egon behar dutela.

Hezkuntza-komunitateari agintzen zaion lana korapilatsua da, denok ezagutzen baitugu 40 urte hauetan hezkuntzaren aldeko itun bat sortzeko egin diren saiakerak.

Aragoiko Eskola Kontseiluko buruak, adierazi du nola ebatzi zen egokitasunez prozesu oso bat. Eta gisa horretan ebatzi gabeko beste batzuk ere egon daitezke. Esate baterako, Estatuan, 2010eko apirilean, Ángel Gabilondo bezalako ministro bat zegoen buru, eta 138 bilera egin zituen hezkuntzako sektoreekin, GKEekin, hezkuntzako eragileekin, kontseiluekin zein autonomia-erkidegoekin.

Itun horrek 12 helburu eta 147 jarduera zituen eta Aragoiko Eskola Kontseiluko buruak esan duen bezala, idatzi egin zen, baina ez zen sinatu. Bazen konpromisoa Estatuaren Aurrekontu Orokorretan aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko 1.570 milioi sartzeko hezkuntzaren eremuan, eta, jakina, hori ez zen gauzatu.

Ministroak lan hori jaso nahi izan zuen, ez zion uko egin nahi izan egoera horri, eta balioa eman zion, nahiz eta zenbait alderdi politikok ez zuten akordioa sinatu eta 22 legegintza-ekimen aldarrikatu zituzten, une horretan iragartzen zirenak eta noiz sortuko zain egon zirenak. Azkenik, ezin izan zen burutu prest zegoenean. Lan eta interes handia, lidergoa… baziren. Era berean, 2018ko martxoan ere ahalegin frustratua egin zen, kasu honetan, beste eragile politiko batzuek ulertu zutelako ez zirela 5.000 milioi oinarrizko jarri, eta ez zela aurreikusten aurrekontuetan urteko 1.500 milio ezarriko zirenik, eta ez ginela hurbilduko hezkuntzaren finantzaketan BPGaren % 5era.

Nik ituna aldarrikatzen dut gai batengatik; hezkuntza-eremuan aldaketak gertatzen ari dira eta, gainera, hezkuntza garaia bera ere aldatzear da. Ikuspegi horrek jarrerak aldatu behar ditu balioak eta, aldi berean, jokabideak sor daitezen.

Hezkuntza garaiaren aldaketa aro horretan, aldaketa bizkorra eta sakona gertatuko da, eta, nolabait, ziurgabetasun batzuk ditu. Testuingurua aldakorra da, anbiguoa, ebidentzia gutxikoa, eta, beraz, uste dut baliabide guztiak behar direla, elkartzen gaituena, batasuna aldarrikatu behar dugula, norabide berean ibiltzeko, diferentziak gorabehera, eskumenen lidergoa eta lidergo politikoa kaltetu gabe, hori ere guztiz beharrezkoa baita eta, gainera, herritarrek agintzen dutenaren ondorio baita.

Mezu baikor bat helarazi behar da. Benetako lazeria izan da eta da pandemia, baina autonomia-erkidego guztiek jarduteko modu bat ere helarazi dute. Jarduerak lehenetsi ditugu eta, gainera, modu bateratuan. Testuinguruan nola lan egin daitekeen ikusteko ariketa bat da. Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren esparruan, herritarrek baliatu ahal izan dituzten eta gauzatu diren akordioetan.

Azkena, urtarrilaren 4an, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren, Osasuneko Lurralde arteko Konferentziaren eta Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiaren arteko ezohiko konferentzia bateratuaren bidez. Konferentzia horretan herrialde-akordio bat deskribatu da. Akordio horretan, aurrez aurreko hezkuntza-modalitatearen alde egin dute 73 mandatarik, tartean, ministroak, lehendakariak, eta osasuneko, unibertsitateko eta hezkuntzako kontseilariak. Nafarroa izan zen 2020an aurrez aurreko hezkuntza-modalitatea ezarri zuen erkidego bakarra maila eta etapa guztietan. Pozgarri zait urtarrilaren 4an autonomia-erkidego guztiek eta orientazio politiko guztiek aurrez aurrezko hezkuntza-modalitatearen alde egin izana, 2020ko abuztuan ez baitzen erraza ezartzen eta erkidego honetan izugarri konplexua izan baitzen.

Beraz, talde politikoekiko nolabaiteko ironiaz hemen adierazten zena gorabehera, alderdi politiko guztiek beren hauteskunde-programan eraman dute itun bat sortzeko edo lortzeko beharra.

Ezin zaio uko egin, baina gai konplexua da, eta ez ditut ikusten itun batera iristeko adierazgarririk onenak. Egun batean, Hezkuntzako zuzendari nagusiarekin hitz egin nuen, parte hartzekoa baitzen Salamancan Espainia 2050eko hezkuntzaren aldeko itunari buruzko mahai batean, Moncloako bulego prospektiboak koordinaturik. Hasieran planteatu ziguten galdera: hobe ote den itun batera iristea edo hobe ote den akordio partzialetara iristea. Nire erantzuna: itun batera iristen ez bagara, akordio partzialetara iritsiko gara. Galdera zentzu horretan birformulatu beharko litzateke, baina, jakina, helburu erabat ukaezina da, eta uste dut gizarte gisa, komunitate gisa, horri heldu behar diogula eta, gainera, gaur goizean entzun dudan esaldi batekin geratu nahi dut: aukera paregabea da eta aprobetxatu egin behar dugula uste dut.